



DOKUMENTAZIO
ZENTROA

TXT 20000

ESTRATEGIARAKO OINARRIAK

Estabaidatzeko proposamena
(Konferentzi Nazinala, 93ko urtarrilla)



IDAZKARITZA NAZIONALA

92-11-6ko bileran, eztabaidatzeko egindako proposamena.

AURKIBIDEA

SARRERA

1.- ABAGUNEKO ELEMENTUAK

- 1.1.- Gizarte/ekonomi ikuspegia
- 1.2.- Gizarte/lan ikuspegia
- 1.3.- Euskal Mugimendu Sindikalaren egoera
 - 1.3.1.- Une sindikalaren ezaugarriak.
 - 1.3.2.- M-27 eta aldaketaren eragileak.
 - 1.3.3.- ELAren azterketa espezifikoak.

2.- ESTRATEGIARAKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK

- 2.1.- Euskal gizarte eta ekonomi gunearen beharrezakoa.
- 2.2.- Lan Harremanetarako Marko Autonomoa (LHMA/M.A.R.L.)

3.- ESKU HARTZEKO FRONTEAK

- 3.1.- Ekintza Instituzionala
 - 3.1.1.- Eskuhartze instituzionalari buruz.
 - 3.1.2.- PRECO II: estabaidarako elementuak
- 3.2.- Sindikatuarteko gure harremanei buruz.
 - 3.2.1.- Harremanen markoari buruz.
 - 3.2.2.- Gutxienezko beharrezko demokratioak.
 - 3.2.3.- Batasun kontsekuentea oinarrietan eta praktikan.
- 3.3.- Negoziazio kolektiboa.
- 3.4.- Gure ekimena ekonomi eta industri egoerari dagokionez.

I.N.k B.N.ri AURKEZTEN DIZKION EBAZPEN-PROPOSAMENAK

- * Ekintza Sindikalaren Batasunari buruz.
- * PRECO Iri buruz.
- * Industri eta ekonomi egoerari buruzko ekimenez.
- * Negoziazio kolektiboari buruz.

SARRERA

Gure eskuhartze sindikalaren oinarriak azken Biltzarrean finkatu genituen arren, ezinbesteko zaigu geure jarrerak areago zehaztea, gain-gainean dauzkagun eta epe labur zein ertainera somatzen ditugun erronka garrantzitsuei ekiteko taktika/estrategia bideratzeko.

Honela labor genitzake erronkak:

* 70.en hamarkadaren hasieratik oso egoera ekonomiko larria jasaten ari gara, gainean dauzkagun industri krisi kezkarri argiro isladatzen dena, eta itxuraz are luzeagoa izango dena.

* Aldi berean atzeranzko abagunea dugu; honi dagokionez, EEEren baldintzarriak (Maastricht, konbergentziarako estrategia espainiarra,...) eta estatuko egiturazko eragileekin beraiekin batera, gizarte mailan oso irispide luzeko politika ekonomiko (egiturazkoa) atzerakorraren abiarazpena dago, azken 40 urteotan langileen mugimenduaren borrokan bidez lortutako gizarte eta lan eskubide batzuen aurkako erabateko eraso dakarrena.

* Hainbat eragileren -sindikalak bereziki- bilakaera bateratu eta elkarlotuaren ondorioz (UGT-CCOO batasun prozesua, ELAren jarrera, gure-geure antolakuntza-garapena,...) eta politikoak gutxietsi gabe (Konstituzio eta Estatuaren abaildura, autodeterminazio eta subiranotasuneranzko iguripenak,...), LABi inguru sindikal berri bat agertzen zaio.

Beraz, gogoeta hauek datozen gure eztabaidak eta jarrerak eta geroagokoak, hemendik aurrera ekin beharko diegun gai zehatzei dagokienez, orientatzeko beren beregiko helburua daukate (PRECO II bera, 1994eko hauteskunde sindikalak, Negoziazio kolektiboan, industri krisian, e.a.en eskuhartzeko irizpideak,...):

1.- ESTRATEGIARAKO ABAGUNEKO ELEMENTUAK

70.en hamarkadaren hasieratik aurrerabeko desaraueketa-erasoa gertatzen ari da gure aurrean gizarte/lan eremuan. Erasoa honek, kapitalak 1929ko krisialdi larriaren ondoren abiarazitako eredu orokorraren abaildura dela eta heldu dion krisi-estrategian dauzka kariak.

Bi dira, beraz, ondoren garatzen diren azterketa-ildoak (biok erabat elkarloturik, errealitate bera direla azpimarratu behar delarik): azterketa ekonomikoa eta lanari buruzko azterketa hertsia.

1.1.- GIZARTE/EKONOMI IKUSPEGIA

«Krisi-estrategia» deituko dioguna 70.en hamarkadaren hasieran abiarazi zuen kapitalak, eta honako helburu hauek zeuzkan eta dauzka:

- egoera larrian dagoen ekoizpen-ereduaren eraispen eta berregituraketa. Eredu hau 1929ko krakaren ondoren sortu, munduko bi gerra handien hondakin eta miserien gainean hazi eta «hirugarren mundua» deritzanaren lehengaiak ebatsiz sendatu zen.

- Kapitalaren berrosaketa eta berregintza iraunkorra ahalbideratuko zuen eredu berri bat sortzen hastea.

Estrategia honen zuzeneko eta berehalako emaitza eta ondorioa Hegoaldean 80.en hamarkadaren erdialdera arte pairatutako berregituraketa/birmoldaketa zikloa izan zen.

Inguru larri hau areago narriatzen da gaur egungo egoera taiutzen duten abagunezko ezaugarriak (har ditzagun kontutan egindako abagunearen azken azterketak: biltzarreko txostenak, Konbergentziarako Plana,...), eta ekonomi-politika publikoak zein ekimen pribatuak iharduteko dauzkan benetako ahalmenak areago murrizten dituzten egiturazko baldintza zanzagarragoak (Estatuko ekonomi/ekoizpen markoa EEEEn sartzea) direla medio. Hegoaldean eraispeneranzko zein ekonomi/industri ehunaren desagerpeneranzko joera eta iguripen argiek eta, aipatu ehuna ordez dezakeen bestelako arlo edo ihardunik ez dagoenez, izaterik ez duen «berrindustrializazioak» bereizten dute oraingo egoera.

Egungo egiturazko baldintzek dirauten bitartean hauexek dira bilakaera ekonomikoaren ildo nagusien ondorioak:

- Lan merkatuaren desaraueketa burutzea (malgutasuna kontratazioan, lan baldintzetan, utzarazpenetan).

- Sektore publikoaren eginkizun eta garrantzia arlo guztietan (ekonomikoa, gizartekoa,...) eztabaidatu eta murriztea: erabateko pribatizazioak, gizarte-babeserako sistemaren eraispena,...

- Langileen ordezkaritzaren ahalmena ahultzea langileria eta kapitalaren arteko harremanen eremu eta aspektu zehatzetan. Sindikalismoak «eragile publiko» den aldetik eta lehen mailako gizarte-solaskide gisa daukan eginkizunari dagokionez, eskubide eta onspen handiak eduki ditzakeen arren, guzti honek lan harremanetan izatez edukiko duen eragina somagaitza izango da eta ez du funtsezko ondorenik ekarriko.

Hegoaldean eraispeneranzko zein ekonomi/industri ehunaren desagerpeneranzko joera eta iguripen argiek eta, aipatu ehuna ordez dezakeen bestelako arlo edo ihardunik ez dagoenez, izaterik ez duen «berrindustrializazioak» bereizten dute oraingo egoera.

1.2.- GIZARTE/LAN IKUSPEGIA

Arlo guztiak ukitu eta egiturazko aspektuetan eragiten duen neurrigabeko eraoaldia.

Elkarrizketa, ordezkari-za, e.a. erako arauzko ahalmen handiak, sindikatuak nor bere buruaren defentsa moderatuan ari direlarik..

Legezko araudiaren egituraren ikuspegitik, gizarte/lan arloan gertatzen ari diren aldaketak, bai ukitzen dutenagatik (arlo guztiak ukitzen baitituzte) bai euren sakontasunagatik (egiturazko funtsezko aspektuetan eraginez) neurrigabeko erasotzat har ditzakegu:

*** Eskubide sindikalaren arloa araupetzen duen xedapen-multzoaren** (LEaren azken atala, L.O.L.S. izenekoa, administrazio publikoen zerbitzuan dagoen pertsonalaren ordezkari-za eta partehartzeari buruzko legea, Funtzio Publikoaren Erreformarako Neurriei buruzko legea,...): negoziatzeko legebideztaketa, ordezkari-za, hauteskunde sindikalak, partehartze eta informaziorako eskubideak, bermeak, orduak, ondare sindikalak, subentzioak, greba, e.a. Jauzia, atomizazioa eta garapen praktikoa (lantokiak, enpresak, marko sektorialak,...) izugarri handia eta gaidinkotasun garrantzitsukoa da. Honako aspektu hauek azpimarratuko ditugu:

- Grebari buruzko legearen aurreproiektua adierazgarriena bada ere, ez da bakarra: Thatcher-en tankerakoa, gaur egun dagoena baino are txarragoa (1977ko EDL).

- Hiritarren Segurtasunari buruzko Legea, dagoeneko indarrean dagoena, eta eskubide sindikalak ukitzen dituena, iharduera sindikalaren oinarriko aspektuak trenkatuz eta oinarriko eskubideak murriztuz: bilerak, manifestazioak, grebak, zehapen gogorregiak..

- Lan osasunari buruzko legearen aurreproiektua, non langileen ordezkari-zarako eskubide eta bermeak ez baitira eraginkortasunez isladatzen.

- Ondare sindikal, subentzio, e.a. i buruzko arautegiaren garapenak eta benetako praktika, zeinetan sindikalismoa maila batzuetan sistematikoki oztopatzen baita: sindikalismo kritiko eta alternatiboarekiko (LAB honen barruan dagoelarik) bereizkeria eta jokabide antidemokratikoa, sindikatuak finantzatzeko arazoak konpontzeke uztea,...

- Ordezkari-zaunerako mugak nahierara ezartzea: zergatik %15, %10 edo %5en orde? Irizpide erabat antidemokratikoak eta baztergarriak erabiltzen dira, gizarte-errealitatearen integratzaileak ez direnak.

- Gehiengodun sindikalismo erreformistaren iharduna negoziazio kolektiboaren eremuetan, pribilegio sindikaletarako itunak lortzean datzana, zenbait aukera sindikal (LAB barne) beren beregi baztertuz,...

- Eta bestelako batzuk: hauteskunde-mugabarruen nahierarakotasuna (eremu publikoetan bereziki), funtzio publikoan aplikagarri den arautegiaren bereizketa eta salbuespenezkotasuna bera.

*** Kontratazioa —> lan baldintzak —> utzaraztea sekuentzia araupetzen duen xedapen-multzoaren** («lan merkatu eta baldintzak» izenez ere ezagutzen dena). Lan merkatuaren malgutasunaren atxakipean bigarren multzo honen desaraupeketa azken fasean dago, beste edozein irizpenen aurretik ekoizpen-beharrizanak izenekoei, behin betirako eta egiturazko izaeraz, lehentasuna emanez. Hona hemen aipatu beharrizanak:

- Kontratazioa: biltzarreko ekintza sindikalari buruzko txostena luze aritzen da behinbehinekotasunaz eta beronek iharduera sindikalaren garapenerako dauzkan ondorioez.

- Lan baldintzak: bai LEaren garapenak zein konbergentziarako Planaren ildotik arestian ezarritakoak (mugikortasun geografikoa, funtzionala, ...), ordenantzen birmoldaketak, teknologia berrien (informatika,...) eta OCT sistema «berrien» ezarpenak (kalitate zirkuluak, talde-lana,...) langileei oso kaltegarri izango zaizkien lan baldintza errealak itxuratu dituzte.

Lan merkatuaren malgutasunaren atxakipean bigarren multzo honen desaraupeketa azken fasean dago, beste edozein irizpenen aurretik ekoizpen-beharrizanak izenekoei, behin betirako eta egiturazko izaeraz, lehentasuna emanez.

- Utzarazpenak: utzarazpenen desaraupeketa LEn agertzen zen jadanik (kanporaketa merketu egin zen, kanporaketa ez-bidezkoetan ez berronartzea ezarri zen, espedienteen administrazio-izapideak «bizkortu» egin ziren,...). Egun, ugazaberia eta instituzioak eurak azaltzen ari diren iritzia neurri berriak gauzatzeko egoera aproposa sortarazten ari dira: kanporaketa-kostuak berriro merkeagotzea (kalteordain merkeagoak; estatuak, arestian txarragoturiko langabezi prestazioen «hobekuntzaren» bidez, kostuaren zati bat bere gain hartu izana,...). Hala ere, behinbehinekotasuna areagotuz emaitza berbera lortzen ari dela azpimarratu eta errepikatu behar da: izan ere, gizarteak pertsona finkoei lanpostuak basatiki utzaraztea arbuiatzen duenez, kontratazio berri oro inoizkakoa izan dadin aukeratzen da, ondoren sotiltasun handiz utzarazteko, ekoizpen aparatuen beharizanetara egokituz.

* **Gizarte-babeserako sistema araupetzen duen xedapen-multzoaren** (prestazioak, sanitatea, hezkuntza,... eta zerbitzu publikoak, oro har). Gizarte-babesari dagokionez, Konbergentziarako Planaren ostean, nabarmena da gizartea babesteko sistemaren txarragotzearen egiaztapena. Eraso hau gizarte-babesaren eremu guztietan gertatzen da: prestazio ekonomikoetan (langabezi prestazioen murrizketak 1984 eta 1992an, pentsioen murrizketa 1987an, pribatizazioa pentsioen fondoei buruzko 1987ko legearen bidez, Lanerako Ezintasun Iragankorraren (LEI/ I.L.T.) pribatizazioa 1992an, estatuaren prestazio ez-kontributibo iragarriak, eta «txirotasunezkoak» autonomiei dagokienez, farmazi produktuen guztirako kostua,...); sanitate-urgazpenaren eremuan ere gertatzen da (zerbitzuen pribatizazioak, plantilen gerarazpen eta murrizketa, aurrekontuaren mozketa larriak,...); hezkuntzaren eremuan ere (haur-eskola eta haurtzaindegien gerarazpen/ desagertarazpena; plantilen eta hezkuntz baliabideen gerarazpena; LH eta enpresen arteko arazoak,...); etxebizitzari buruzko politika (alobera, jabetza eskuratzeko bidea,...); bai eta zerbitzu publikoen gainontzeko eremuetan ere (garraio publikoa, bide-azpiegiturak, herri/gizarte-ekipamenduak,...).

Guzti honen ondorioa, estatu osoan berez atzerakorra den lan harremanen eremuan gertatzen ari den funtsezko, errotiko eta atzeranzko aldaketa da, Hego Euskal Herria ukitzen duena, noski; eta, honez gain, aldaketa beroriek, iharduera sindikalean garatzean, gure estrategia sindikalean ere edukiko ditu ondorioak.

1.3.- EUSKAL MUGIMENDU SINDIKALAREN EGOERA

Maiatzaren 27ko greba alde aurretiazko ohar eta ondorengo ajea eta guzti, gure Biltzarrearen (martxoa-1992) ondoren gertaturiko hainbat gorabehera argitu zituen gorengo puntua izan zen. Zeintzuk dira aldaketa hauek? Sortarazten al dute eragin zehatzik?

1.3.1.- UNE SINDIKALAREN EZAUGARRIAK

A.- UGT-CCOO-ELAren Ekintza Batasunaren arrakaladura.

Azken urteotan bultzaturiko «ekintza batasun»erako eredu sindikala krisiak jota dago eta, horren ondorioz, LABen jarrera eta aintzindaritza, bere sendarpen kuantitatibo eta kualitatiboari esker, kontutan hartzeko eragin ahalbide berriak bereganatzen ari da. «Krisialdi» horren argudio edota kariei dagokienez ondorengo hau zehaztuko genuke:

* CCOO-UGTren «bat egite» prozesua. Iharduera eta ondorioei buruzko diseinu guzti honetan ezin ditugu gubxietsi CCOO eta UGTren «bat egite»rako joerak Euskadin eduki litzakeen ondorioak eta ELAren prozesu guzti hori finka ez dadin egindako saikera. Euskadin, IUREn ahultasunak edo EE desagertzeak epe laburrean (bi urteko epean) prozesu horri begirako urrats garrantzitsuak emateko baldintzak erraz litzakete, CCOO barruan gertatuko liratekeen «mugimendu»en ondorioz. Ez dugu ahaztu behar CCOOren aparatuan EEren sektore garrantzitsuen eragina dagoela eta CCOOren kidegoaren oso portzentai altu batek PSOEn politikaren aurkako jarrera daukala. LABek, bere proiektu sindikalak aurrera egin dezan egin behar dituen balorazio edo hartu behar dituen jarreraren artean leku bat bete behar

Gizarte-babesari dagokionez, Konbergentziarako Planaren ostean, nabarmena da gizartea babesteko sistemaren txarragotzearen egiaztapena.

Lan baldintzen errotiko eta atzeranzko aldaketa; honek iharduera sindikalean edukiko dituen ondorioek gure estrategia sindikalean izango dute eragina.

Azken urteotan bultzaturiko «ekintza batasun»erako eredu sindikala krisiak jota dago eta, horren ondorioz, LABen jarrera eta aintzindaritza, bere sendarpen kuantitatibo eta kualitatiboari esker, kontutan hartzeko eragin ahalbide berriak bereganatzen ari da.

du auzi honek.

Sindikatu abertzaleen «hazkundera» (ELA, LAB, CIGA, ...) eta sendarpen alternatiboa ekiditeko lan harremanak estatutzearen alde eta, beraz, erakunde horiek eragina daukaten lurralde markoetan gero eta ahulagoak izan daitezen, CCOO eta UGT-k egiten duten arian-ariango erroka.

Gizarte-lan eta ekonomi arloei dagokienez indarrean dagoen estatuaren garapenak, goia jo du eta benetako LHMA bat egituratzeko gaitasunik eza agerian geratu da.

ELAren ustez, batasun sindikalaren eredu ez da jadanik baliagarria eta birplanteatu egiten ari da.

*** Ekintza batasunerako ereduaren iraungipena.** Sindikatu abertzaleen «hazkundera» (ELA, LAB, CIGA, ...) eta sendarpen alternatiboa ekiditeko lan harremanak estatutzearen alde eta, beraz, erakunde horiek eragina daukaten lurralde markoetan gero eta ahulagoak izan daitezen, CCOO eta UGT egiten duten arian-ariango erroka, UGTren bereziki, gainerako erakunde sindikalen eginkizuna areago baldintzatzera daramate. Zuziur, UGTren buruzagi kualifikatuak jendaurrean egindako hausnarketak oso adierazgarriak izan ziren horri dagokionez, honako hau esan baitzuen: «arlo askotan uzten den hutsunea (CCOO eta UGTek burutu beharreko estrategiari zegokionez) nazionalitate eta erregioko sindikatuen sorrera eta garapena ahalbideratzen dituzten lan harremanetarako marko autonomoak (mesprezuzko doinu) urraska betetzen ari dira»...«beraz, UGT eta CCOO behingoz, lan harremanetarako estatu mailako markoa osatzeari begira egindako estrategia seriotasun osoz planteatu beharko luke». Argitasun handiagorik ezin eska daiteke estrategia fokalizatu eta berari jarraikiz CCOO eta UGT ematen ari diren urratsak finkatzeko orduan.

Iharduketako ildo orokor horri jarraiki CCOO eta UGTek (Euskadi mailan CCOO estatuko eskemei kontrajartzen zaien jarrera badauka ere) arian-ariango urratsak eman dituzte azken hilabeteotan. Konbergentzi Plana eta Grebari buruzko Legeari erantzuteko era, Hauteskunde Sindikalei buruzko akordioa, UGTren negoziazio kolektiboa estatutatzeko (Eraikuntza Komenioa kasu) jarrera, Lan ordenantzen desagerpena eta sindikatu biok, akordio markoen bidez Negoziazio Kolektiboari dagokionez ere arloak bereganatzeko ahalegina, INEM eta Gizarte Segurantzari buruzko (Zufiarren tesiekin bat etorritik hain zuzen) gaitan Estatuaren garapenari dagokion arazoei UGTek PSOEren taktikak bere egiteagatik azken honi eskaintzen dion estaldura politikoa, Nafarroan UGTek izandako jarrera sindikala... euskal sindikalismo osoa ukitzen badu ere, horra hor funtsean ELAren taktika sindikalean eragin nabarmena daukan iharduketa multzo bat, orain arte CCOO-UGT-ELAk eutsitako «ekintza batasuna»ren eredu eta edukinetan ondorioak sortarazten dituena.

*** Lan, ekonomia eta arlo sindikalari hertsiki loturiko konstituzio eta estatu markoaren iraungipena.** Gizarte-lan eta ekonomi arloei dagokienez indarrean dagoen estatuaren garapenak, hainbat eskumen garrantzitsuren geraldia (beren karakterezioan erlatibizatu beharko genituzkeen arren, «desentralizazio» huts bihur ez daitezen) aparte utzita, INEM eta Gizarte Segurantzari adibidez, goia jo du eta benetako LHMA bat egituratzeko gaitasunik eza agerian geratu da. Hots: bide baten iraungipena gertatzen da, euskal sindikalismoari beraren bilakaera eta garapena eta euskal langileen interesen defentsarako estrategia bermatuko dituzten eskuhartzerako oinarriak emateke.

* ELAren jarrera. Duela gutxira arte, ekintza batasunetik, Euskadiko CCOO eta UGTren mugimenduak kontrolatu eta -nolabait- berorien bidez aipatu zentral sindikalen estatuko mugimenduak baldintzatzeko zituela uste izan du. Hala ere, denboraz bestelakoa gertatzen zela ikusi egin du; praktikan ELA, CCOO eta UGTren strategiaren atzaparretan gatibu zegoen. Berauek, gutxienez, beharrezkoa izan arren bigarren mailakoa den eginkizun bat emana diote Madriletik. ELA bide hori bere strategiarekin bat ez datorrela somatzen hasi da eta, beraz, CCOO eta UGTekin egindako ekintza batasuna birplanteatzeko beharra eduki du.

B) Geure egoera sozioekonomikoa.

Arian-ariango industri eraispenarekin batera gertatzen den egoera sozioekonomikoaren larritasunak, Estatuak Euskadin inbertitzeari egiten dion boikotak (Azpiegiturak, Berrindustrializazioa, ...) eta Maastrichteko itunaren (Konbergentzi plana) ondorioz PSOEk Estatu mailan orohar artikulatzen dituen neurriek, Estatuak artikulaturiko legeri multzoak (batez ere enpleguaren behin-behinekotasuna areagotzea) oso ukiturik dagoen langile populazioaren eremuan eskuhartze eta erantzunak emateko beharrak sortarazten dituzte Langileen Mugimenduak zailtasunak (Biltzarrean eztabaidatu bezala, hainbat faktore eragileren ondorioz) badauzka ere.

Gure ihardueraren ezaugarriei muzin egin gabe garrantzitsua da sindikatu guztiak batera egindako mobilizazio-erantzun baten garrantzia kontutan hartzea. Erantzun horrek egoera aldarazi beharko luke, ondorio politikoak eta, jakina, ezarritako planak ahal beste galgatu eta baldintzapetzeko aukera sortuz. Honek ez du zertan ekarri behar LAB eskuhartze sindikalerako markoetan «disolbatzea», marko horiek egoeraren larritasunaren aurrean erantzunak gogortu eta litezkeen kontraesan politiko eta sindikalak areagotzeko erabiltzea baizik. Eskuhartzerako gune horietan gure ordezkagarritasuna eta sarrera gure jarrerak eta gure diskurtso politiko-sindikala bidezko zeko borrokan egin behar dugun lana piztearekin batera eman behar dira, jakina.

Urte askotan lehenengo aldiz langile askoren begien aurrera industri eraispene honen erantzunkizun politikoak eta beraz, beraren konnotazio politikoak eta ez ekonomikoak argi ager daitezke. Era berean, nazionalistak ez diren sektoreetan Euskal Subiranotasuna euskal langileen interesak defendatzeko beharrezko baliabidea delako iritzia nagusi daiteke. Hori guztiori kontutan harturik berebiziko garrantzia dauka goiko lerroaldean egindako hausnarketak.

1.3.2.- M-27 ETA ALDAGAI HAUEK

M-27ko deialdiaren inguruan zentral sindikal ezberdinen artean eman ziren mugimenduek egoera «aldagarri» bat agertarazi bazuten ere, ezin lepora dakizkioke aipatu grebari benetako aldaketen gogortasunari atxekirik ez dauden izariak.

Aurretik aipaturiko tirantura sindikalek polarizaturiko data aldaketaz gain, 27ko grebaren faktore nagusia Sindikatuaren eskuhartzearen izaera erabakitzailea izan zen. LABek 27an egin zuen erroka ez zen Estatukoarekin alderatuz egin zen data aldaketa «hutsean» oinarritzen soilik, Hego Euskadiko borroka eta errebindikazio gunea agertzeko garrantzitsua bazen ere, jarraibide berri bat, ondorengo urratsak ahalbideratuko zituen aintzindaritzaren sindikal bat sortarazteko nahaian baizik. Beti ere geure erakundearen ezaugarriekin edukiko zuen osagarritasun egokia kontutan hartuz. Hori dela eta erakundeak bere gain hartu zuen «gunea» aukera berriak eskaini dizkigu, gure ustez erakundeari eman behar zaion maila guztietako garapenarekin bat etorritik.

1.3.3.- ELAri BURUZKO AZTERKETA ESPEZIFIKOA

Sindikatuentzako gune berri bati buruzko aipamen hauetan ELA k ELMn eskuhartzerako ildoari dagokionez izan duen bilakaera eta jarrera sakontasun handiagoz baloratzea ezinbestekoa da.

A.- 77az geroztik jorraturiko jarraibide nagusia.

Azkeneko hamabost urteotan euskal gizartean ELAren eskuhartze sindikala eta eginkizunak oso ezaugarri zehatzak eduki dituzte beti, aspaldion kontutan hartzeko bilakaerak gertatzeko eragina izan duten faktore politiko zenbait eman direlarik. Non kokatu dira ELAren eskuhartzerako parametro nagusiak?:

* Konstituzioa-estatutu proiektuaren finkapenaren eragilea. ELA beti egon da PNVren «aterkin» politiko-sozialaren pean eta 79an sortutako estatutu proiektua «finkatzearen» eginkizuna bete izan du ELMn. 80. hamarkadan Sindikatu honek bultzatzen zuen apolitizismoak ELM herri honetako borroka soziopolitikoari egiten zion ekarpenetik aldentzea zeukan funtsezko helburu; hots, Estatutuaren aldeko apostu itsuaren ildotik, ELA urte askotan LABen antitesia izan da eta haren praktika gurekiko CCOO eta UGTrena baino erasokorragoa. LAB arlo guztietan sendartu izana, ELA k egin zuen «apostu politiko» zehatzaren (Estatutu-Armejamendua eta PNV) bilakaera krontaesankorrek eta CCOO-UGTren jarrerak dira ELA k eduki ohi duen jokaera «klasikoa» ukitzen ari direnak. Beraz, berriro ere esan behar dugu ELAren «independentzia» eta «apolitizismoa» baliabide dialektiko bat, berezko «label» baten antzeko zerbait izan da eta izango da beti euskal politika eta ekonomiaren esparruan, eta are gehiago herri honek berezko nortasun politiko, sozial eta ekonomikoaren alde daraman borrokan hori ezinezkoa delarik. Baina, horrek ez du esan nahi «produktu» horrek, saldu duten moduan, langileen arteko

Egoeraren larritasunak CCOO-UGT-ELA esku artu eta erantzutera behartzen ditu. LABek inertzia horrez baliatu behar du, jarrera eta mezuak baldintzatu eta eragiten saiatuz.

M-27ko eragilerik nagusia ez da data aldaketa -hau ondorioa baita-, erantzuteko gaitasuna edukiko duen euskal gune sindikal bat sortarazteko beharrari lehenetasuna ematea baino.

ELA beti egon da PNVren «aterkin» politiko-sozialaren pean eta 79an sortutako estatutu proiektua «finkatzearen» eginkizuna bete izan du ELMn, aipatu proiektua euskal langileekin zerikusirik ez daukan gizarte proiektu bati dagokion arren.

sektore jakin batzuetan «arrakastariko» eduki ez duenik. Kasu askotan, harrigarria bada ere, gutxienezko identitate abertzalerik ere ez daukaten eta, lantokietan eskuhartzean, jarrera atzerakoiak (azalkeria sindikala) agertzen dituzten sektoreetan ere. Kontu hau -berriro diogu- bilakaera horren ondorioa da eta beti izango da «zama astuna» ELAk sindikatu abertzale izaera lor dezan, hots euskal langileen eskakizun ekonomiko eta soziopolitikoetan gizarte eragile aktibotzat irudi berri bat eskura dezan.

ELAk, apolitizismoari buruzko mezuetatik abiatuta eta pragamatismoa bere ihardueraren ardatz filosofiko bihurtuz, erabat sutsu aritu da «zerbitzuetako sindikalismoa» deitutakoa bultzatzen, bai eta honek dakarren desideologizazioa ere.

ELM eta sindikalismoaren eskuartzea Gobernu Zentralaren legegintza-neurriek goitik behera baldintzatuta daudelarik euskal marko baten osaketari Negoziazio Kolektiboa garatuz soilik ekiten saiatzea erabateko gezurra da eta izango da.

* **Pragamatismoa/apolitizismoa.** Aurrekoan oinarrituz eta bere eskuhartze sindikalari dagokionez, ELAk ERABATEKO PRAGAMATISMOzko ihardunbidea garatu du, bestelako ondorioak kezkarri ez zitzaizkiola. Hau da, Berregituraketa, gatazka edota transferentziaren baten aurrean, ELAren ihardunbidea beti egon da egintzak erakunde bezala garatzeko ekarriko dizkioten «emaitza garbi» kuantitatiboaren menpean, gainerako faktoreak alboan utzita. Ihardunbide hau konstante negatiboa izan da euskal sindikalismoak, EMS eta Langileen Mugimenduari orohar erantzuteko gaitasun eta aintzindaritzaren sozial handiagoa emateko beharrezko dituen funtsezko arazoei ekiterakoan. Aurrekoarekin loturik, ELAk (bere helburua den garapen kuantitatiboak itsuturik) apolitizismoari buruzko mezuetatik abiatuta eta pragamatismoa bere ihardueraren ardatz filosofikoa bihurtuz, erabat sutsu aritu da «zerbitzuetako sindikalismoa» deitutakoa bultzatzen azken urteotan (ikus beraien azken Biltzarreko txostenak) bere antolakuntza-egiturari dagokionez aldaketa zuzentzaileak somatzen badira ere, filosofia horrek bere ihardunbide sindikal osoa hartu izanaren ondorioz areagotuz joan zen antolakuntza-«hutsunea» betetzeko helburua dutenak.

* **Negoziazio Kolektiborako Berezko Esparrua / Lan Harremanetarako Marko Autonomoa.** Euskadin LHMA egituratzeari dagokionez eta estatutuan oinarritutako «apostu politikoaren» ondorioz, ELAk LHMA aurrera ateratzeko bide bat garatu du, eurek faltsua dela dakiten arren, ezinhobe edota baliogarri bailitza teorizatu nahi izan dute beren burua zuritzeko. Euskal Langileen Mugimendua (ELM) eta sindikalismoaren eskuhartzea Gobernu zentralaren legegintza-neurriek (enpleguaren behinbehinekotasuna, LOLS,...) goitik behera baldintzatuta daudelarik LHMAren osaketari Negoziazio Kolektiboa -urrats berritan- garatuz ekiten saiatzea, LHMA baten eraketari ekiteko saiakera erabateko gezurra da eta izango da eta egun, estatutuaren eta errealitate politikoaren porrotaren ondorioz, ELAk, sindikalismo abertzaletik benetako LHMA mailaka erdiesteko ekarpenak egin ahal izateko gainditu behar duen ataza da.

* ELA Nafarroan. Azterketa honen barruan, Nafarroan heldu beharreko eskuhartze eta estrategi ildoak gehitu eta zehaztu behar da. Nafarroako gune sindikalean daukan kokapen berezia (%14,5) abiapuntutzat hartuz, UGT eta CCOO-k sistematikoki baztertzen dutela (ez dago batasun sindikalik Nafarroan) eta ELAk sindikalismo guztiz menpeko, itunzale eta azalekoa egiten duela ikus daiteke. Etsipenean bilatzen duen euskarri bakarra instituzionala da, hau tranpolin gisa erabili ahal izateko. ELAk ipar aldean igortzen duen mezuak ahozko "erradikaltasuna" dauka ezaugarritzat eta honekin ezker abertzale eta eskuin abertzalearen inguruko sektoreak erakarri nahi ditu, erdi eta hego aldean berriz, azaleko eta zerbitzuetako sindikalismo hutsa gauzatzen duen bitartean, guzti hau liberatu kopuru izugarri eta neurrigabeak eusten diolarik.

B.- Aipatu ihardunbide nagusi hori aldarazi duten faktoreak.

Aurrekoan oinarrituz, Euskadin Mugimendu Sindikalaren ihardueraren faktore soziopolitiko eta berezko bilakaerak gertatu dira, lehenago azaldu dugun ELAren ihardueraren ezaugarri nagusietan jarraikako eragina eduki dutenak. Horietako bakoitzean sakondu eta beraien ondore eta garrantziaz eztabaidatzeke, azpimarratu behar dugu ELAren jarrera «aldakorretan» eduki duten ondorea, orohar:

* **Estatutu-markoaren ahidura,** Lan/ekonomi arloan bereziki, eta ELAk euskal sindikalismoaren eginkizuna dinamizatuko duen marko bat osatzeko burututako strategiaren porrot nabaria ere faktore garrantzitsuak dira egoera sozio/ekonomikoa

eta CCOO eta UGTren jarreran bilakaera aztertzean. Bai ekonomi/lan-arloari zein arlo politikoari dagokionez, baita erreibindikazio nazionala gertagarri bihurtzen duten Nazioarteko gertakarien ildotik ere, ELA jakitun dago Estatutua errealitate politikoak «gaindituta» dagoen bitartekoa dela, berarekiko erabateko «fidelitasun»ezko diskurtsoa oraindik badarabil ere. Ezker abertzalearen aurrez aurreko jarrera, EAk gero eta nabarmenkiago aurkezten dion zalantzagarritasuna, PSOEk Gasteizko Gobernuan duen ardatz-gunetiksorazarazten dituen kontraesanak eta lehen aipatutako Nazioarteko gertakariak, ELA nazio eskakizunari buruz mintzatzen has dadin (92ko martxoan Nazio Batzordearen Ebazpena; atal honetako «D») puntuan beroni buruzko hausnarketa berezia dago) eragiten ari dira.

Hausnarketa beronetan bertan kokatu behar ditugulan harremanen arloan izandako bilakaera instituzionalaren porrota eta ELAk (Negoziazio Kolektiboaren bidez) LHMA bat eratzeke xedez bultzaturiko bidea. Egun inoiz baino errazago frogatu daiteke langileen interes sozioekonomikoen defentsan eragile aktibo izateko sindikalismo abertzaleak daukan bitartekorik eza. Egitura instituzionalak, lege-oinarririk ez edukitzeagatik, edukirik ez daukalako. Hots, Autonomi instituzioek LHMA bat funtsaz hornitzeko gaitasuna falta dutelako. Guzti honi CCOO eta UGTk sozioekonomiaren arloan Madrildik eta protagonismo osoz, esku hartzen duten era gehitzen badiogu, ELAren ustez ere Euskadiko lehenengo indar sindikala izanik «hilda» edota eragiteko boterekerik gabeko sindikatu bat ez izateko, «hauspokadak» behar dituen errealitate baten aurrean gaudela ikusiko dugu.

* **PNVren 87ko zatiketak** ELAk bere garapenerako zeukan «aterkin» soziopolitikoaren baterakotasuna deusezteaz gain, egoera politiko ezberdin bat sortarazi zuen Vascongadasen, PSOE Gobernu kide bihurtu eta honek autonomiaren garapenean eduki zituen eraginak zirela medio. PNVren ahultasun politikoak, PSOEren kidetasunaren «behar izana»k euskal politikaren arlo askotan ezezik (abertzaleen aurkako Itunen sorrera, ezker abertzalea kriminalitzeko saioak, hezkuntza eta euskararekiko politika, besteak beste), ekonomi industri eta lan harreman arloan ere eragin ditu ondorioak. Baina zatiketaren eragina, ELAk bere estrategiaren garapena gauzatzeko oinarri zeukan «nazionalismoan» sortarazten den diskurtso politikoaren sakabanaketa gatik azpimarratu behar dugu. PNV gizarte-esparru «burgesean» lerrotzeko asmoak, «alderdia» izatek bere esku hartze politiko-ekonomiko guztia ardatz ideologiko «demokrata kristau»en barruan gero eta sartuago dagoen PNV baten irudirik sakonenak behintzat (horren ondorioz sindikalismoaren gizarte eragile ihardule gisa gutxietsiz) kezka berriak sortarazten ditu ELAren zuzendaritzaren barnean. Hots, PNVren zatiketa eta beronek ekarri dion ahultasun politiko eta PSOErekiko itunak egiteko joera, EA PNVren aurkako mintzaira erabiltzen sortu izana, eta politikoki eusteko gero eta indartsuagoa den ezker abertzalearen diskurtso eta proiektua, ELAri, bere garapena gauzatzeko, hausnartaraziko dioten eragileak izango dira. ELAk, independentzia eta apolitizismoa aldarrikatzeagatik, arazo hauek kontutan hartzen ez dituela eta bere estrategiaren barnean ez dagoela pentsaraztea zozokeria galanta da.

* **Jarrera politikoen koherentzia eta antolakuntzari dagokionez ezker abertzaleak aurrera egin izana**, ELMan bere bidea indartsu egiten ari den LAB bertan delarik, beste faktore bat da. Hau da, PNVren zatiketa gertatzean (zatiketan ezker abertzaleak berak eduki zuen eragina kontutan hartuz) hipotesi gisa, ezker abertzalea estatutuzaleen proiektuak «berreganatu» izan balu, ziur gaude lehen aipatutako eskemek ELAn sortarazten dituzten «kezkek» ez luketela egun daukaten garrantzia, erakunde gisako beraren etorkizuna «ziurtatuta» legoke eta. Beraz LAB eta ezker abertzalearen proiektuaren aurrera-pausuak eragina indusitua dauka ELAren jarreretan ere.

* **CCOO eta UGTren arteko hurbiltze prozesu ia organikoa**. CCOO eta UGTren artean esku hartzerako izandako «batasun» prozesua eta ondoren, «batasun organiko»rantz jotzeko litekeen aukera, ELAn eragina izan duen beste faktoretariko bat izan da. CCOO eta UGT bikotea bultzatzen ari den bide estatalista kontutan hartzen badugu, ELAk gero eta areago izaten du LABen «beharra» bere esku hartze sindikala burutzeko. Kontu hau ez da bat-batean somatzen baina gero eta nabarmenagoa izan da, berriro diogu, sindikatu bi horiek daukaten jarrerak direla

Estatutu-markoaren ahidurak, Lan/ekonomi arloan bereziki, eta ELAren strategiaren porrot nabariak - Negoziazio Kolektiboaren askieza - ELA mintzamolde abertzale erreibindikatioagoa erbiltzen has dadin eragiten dute.

Egun inoiz baino errazago frogatu daiteke langileen interes sozioekonomikoen defentsan eragile aktibo izateko sindikalismo abertzaleak daukan bitartekorik eza. Egitura instituzionalak, lege-oinarririk ez edukitzeagatik, edukirik ez daukalako.

PNVren zatiketak eta bere benetako klase interesekiko lerrotzeko sozio-ekonomiko agerriak ELAk zuen babesa desegin dute.

LAB eta ezker abertzaleen proiektuaren aurrerapausuak eragin indusitua dauka ELAren jarreretan ere.

medio, M-27 Greba jendaurreko lehenengo agerpena izan zelarik.

C.- Azken bi urteotan izan duen bilakaera.

Aipatutakoaren ondorioz, azken denboraldiotan ELAren betiko jarreraren egokitzapenen adierazle batzuk isladatzen dira (nahiz eta guztiok, bai eta geuk ere, horren beharra daukagun). Beroriei dagokionez eta labur bilduz ondorengo hauek kontutan har ditzakegu:

ELAk, bere ihardun sindikalean, etsaiagotzat ditu CCOO eta UGT, Gobernu Espainiarra eta interes handiak baino; hau dela eta beraren kontraesan nagusia taktika ezberdinak dira. Areago kezkatzen ditu CCOO-UGTk egiten dutenak egiturazko elementu objektiboek baino.

* **Euskal sindikalismoan eta sindikatuen arteko harremanen pittinka-pittinkako dinamikan LABek dauzkan jarrera eta eginkizunaren aintzatespena.** Orain arte harreman hauen gailurra M-27ko Grebarako eduki genuen batasun jarrera izan da, baina badaude beste erreferentzia gutxi batzuk ere. Dena dela, horrek ez du orain arte, harreman sindikalen alorrean eutsi izan dion bidetik (CCOO eta UGTrekin batera) sahiestarazi, nahiz eta sindikatu bi hauek dauzkaten jarrerak ezagutu.

* **UGTrekiko aurrez aurreko aurkakotasuna** eta orain arte sindikatu «sozialista» eta CCOOrekin edukitako «batasun sindikala»ren gainbehera. ELAk, bere ihardun sindikalean, etsaiagotzat ditu CCOO eta UGT, Gobernu Espainiarra eta interes handiak baino; hau dela eta beraren kontraesan nagusia taktika ezberdinak dira. Areago kezkatzen ditu CCOO-UGTk egiten dutenak egiturazko elementu objektiboek baino. «Kide» berrien bila ari dira (LABetik etor litezkeenak) baina ELAren betiko estrategiarekin bat egiteko, baina jakina, indarrean dagoen PNV-PSOEn jarreraren aurkako jokabide «erasokorrago»ez.

* **Diskurtso abertzalea areagotzea.** Gaur egungo ekonomi/lan-«status quo»ak gabeziak dauzkala nolabait onartzen du baina LHMArantz eta benetako subiranotasunerantz jotzeko strategi aldaketa kualitatiborik bere gain gabe. 92ko maiatzeko adierazpena, garrantzitsua bada ere, ez dauka jarraipenik eta, ELMan eskuhartzerakoan, inolako eraginik.

ELA «igaroaldi» prozesu batean dago, nolabait esateko, bere ihardunbidea eta aldaketen premiaren artean, hain zuzen. Dena dela, bilakaera honek, LABek euskal sindikalismoaren barruan koordinatu berri batuaz esku hartu eta eragiteko eduki dezakeen aukera baloratzea ahalbideratu behar digu.

Azken batez, ELA (abagune politikoak aurkezten dituen nahaspila eta zailtasunagatik) «igaroaldi» prozesu batean dago, nolabait esateko, bere ihardunbidea eta, lan honetan aipatutakoak eragindako aldaketen premiaren artean, hain zuzen. Dena dela, bilakaera honek, LABek euskal sindikalismoaren barruan koordinatu berri batuaz esku hartu eta eragiteko eduki dezakeen aukera baloratzea ahalbideratu behar digu.

D.- 92-3-6an ELAk egindako dokumentuaren irakurketa kritikoa.

92-03-06ko dataz beraren Batzorde Nazionalak egindako ebazpen-dokumentua irakurritakoan honako aspektu hauek azpimarratu behar ditugu:

a) Diskurtsoaren jite formalari dagokionez, positiboak diruditen irizpideak soma daitezke, batez ere «Euskal Herri osoan erabateko burujabetasuna» lortzeko asmoa; autodeterminaziorako eskubidearen aintzatespen eta erabilpena erreibindikatu; edo «gure herriaren erabateko burujabetasuna lortzeko borrokan dagokien erantzunkizun maila bereganatzeaz» mintzatzen direnean.

Burujabetasun nahiari dagokionez, areago nabarmentzen dute lurralde batasunaren beharra burujabetasun kontzeptua funtsatzen den formula politikoa baino (ez dituzte ez Subiranotasuna, ez Independentzia hitzak aipatzen, ez eta Konfederakundeaz,....ere mintzatzen).

Baina adierazpen positibo generiko hauek gainbehera doaz honakoa aldarrikatzen dutenean:

- ENAMen estrategiatik erabat aldentzea; borroka armatua esplizituki eta behin eta berriz kondenatu eta kritikatzten dute.

- Egungo Vascongaseko instituzio politikoei legebidez kotasuna ematen diete nahiz eta era berean, gizarte eragilez beroiek daukaten jarrera dela eta kritika bortitzak egiten dizkieten. Baina «Burujabetasuna lortzeko borrokan daukaten erantzunkizun maila»ri

dagokionez, ez dago inolako zehazpenik inon ere. Ez dago ezelako autokritikarik. Ontasun eta gaiztotasunaren gainean egoteko jarrera hartzen dute, ez ordea erreibindikazio edo nazio mugimenduan esku hartzen duen alde inplikatuarena. Zentzu honetan indar abertzale ezberdinen artean banatzen dituzte erantzunkizunak, laguntzeko kulturarik eza eta indarra barne- liskarretan gastatzeko joera kritikatu. Indar abertzale deitutakoen artean dauden klaseko proiektu estrategiko ezberdin eta dibergenteen azterketa baztertzen dute.

Azken buruan, politiko eta sozialaren arteko ainbanaketa artifiziala mantentzen dute, nazio-eskubideen aldeko borrokan parte hartzeak beraiekin zerikusirik ez daukala ematen duelarik.

b) Lan harremanetarako berezko markoa deitutakoari dagokionez eskakizun estrategikoa dela deritzote, «...Gernikako Autonomi Estatutuak lan arloari dagokionez hain zuzen, burujabetasunarako aukerak mugatzen dituen eskumen-hutsarteak dauka, EAERI arlo honi dagozkion araubidezko eskumenak aintzatesten ez zaizkiolako». Hala ere, eskakizun hau egun indarrean dagoen markoaren barruan erraz asko lor daitekela uste dute. Zailtasunak, beraien ustez, «Botere Zentralaren jarrera itxia...» eta PSOEk arazo honi dagokionez darabilen beligerantzia lirateke.

Ataza honi indar abertzaleek -eta ez eurek- heldu behar diotela uste dute eta berori borroka ez bihurtzeak kezkatzen ditu. Indar abertzaleen jarrera eragingarriagoa eskatzen dute, beraz.

CONFEBASK, Vascondaseko ugazaberiak ildo horretatik jotzeko daukan gertutasun urria edo hutsala kritikatu du eta berorrez deitoratzen da.

Estatuko sindikalismoak -partaide direnako ekintza batasunaren sendartzearen ondorioz- bere oldarkortasun eta gaitasun oztopatzaillea areagotu ditzakeelako abisua zabaltzen du, eta jokaera Vascondaseko ekintza batasunaren jarraikortasuna eta premiaren menpean jartzen du.

c) Aipatutako dokumentu airakurri eta aztertutakoan badirudi egungo nazio ikuspegiaren egoera gainditu eta «lan harremanetarako berezko marko» ranzko aurrerapausuak emateko beharra somatzen dela. Hala ere, behar hori hitzez baino ez dute adierazten eta funtsezko oztopo bat dauka, bere garapena egungo marko juridiko-politikoaren barruan bideragarria dela sinestea alegia. Dena dela ere beronen buratzapena vascongadasko esparrura murrizten dela iradokitzen da tazituki.

Dokumentuak ez du ELAren betiko dinamikan mugimendu edo aldaketarik gerta daitekeela pentsatzeko inolako datu edo zantzurik isladatzen. Ezin da soziopolitikan mugimendu argiak bultzatzeko prestutasunik daukatelako ondoriozikatera; ezta beren ohizko estrategia sindikalean aurreranzko jauzirik egingo dutenik ere. Diskurtsoa bera zabaltzea eta beren ekintza batasunerako kideak birplanteatzea dira berrikuntzarik handienak.

d) Beren hausnarketek beren jarreretan aldaketarik eragiten ez dutena argi asko frogatzen du kontraesan nagusiaren ardatzari baino -ekonomi eta gizarte-politikaren eremuan hartzen ari diren neurri atzerakorren aurkako erantzuna ematean datzana- euskal eremuko eta Estatuko sindikalismoen arteko kontraesanen ardatzari lehentasuna emateak.

Lan harremanetarako marko autonomorantz jotzean CCOO-UGTEk heldu dioten jarrera eragozlea, bai eta negoziazio kolektiborako markoak zentralizatzeko joera ere, kezkarriak izan behar dira sindikalismo abertzalearentzat eta, zentzu honetan, kontraesan fronte nabari baten sorrera eragingo duten baldintzak sortzen ari dira. Baina ez dugu ahaztu behar kontraesanik nagusienak aurkeztuko dizkigun frontea, Gobernu Espainiarrak onartuko dituen neurri errepresiboen bitartez (Konbergentzia Plana,...), jarriko digula.

2.- ESTRATEGIARAKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK

2.1.- EUSKAL GIZARTE ETA EKONOMI GUNEAREN BEHARRIZANA

Euskal botere publikoek beren politika sozio-ekonomiko espezifikoa abiarazi eta iharduera ekonomikorako inguru espezifiko bat itxuratzeko gaitasuna eta beharrezko baliabideak eduki behar dituzte.

Egungo egoerak, euskal botere publikoek herri honen interes eta gizarte zein ekonomi baldintzekin bat egingo duen politika sozio-ekonomikoa abiaraztea exijitzen du. Honetarako, euskal botere publikoek beren politika sozio-ekonomiko espezifikoa abiarazi eta iharduera ekonomikorako inguru espezifiko bat itxuratzeko gaitasuna eta beharrezko baliabideak eduki behar dituzte. Honek, jakina, murgildurik gaudeneko nazioarteko eremuan jarrera eta eginkizun berriak edukitzea eskatzen du.

Industri egoeraren narriadurak eta ekoizpen-ehunaren desegituraketa eta suntsiketa prozesuaren areagotzeak ozenago bilakarazten dute Euskal Herrian berezko ekonomi gune integratu bat arin itxuratzeko beharizanaren eskaria.

Euskal gune ekonomikoa nekez pentsa daiteke subiranotasun eta lurralde-integrazio helburuen pean ez bada. Eskumen-botere osoaren iharduna (moneta-politika, fisko-politika, ekonomi plangintza, industri politika, azpiegiturak,...) exijitzen du, oraingoa baino kualitatiboki askoz handiagoa, jite nazionaleko ekonomi eta gizarte-araueketa zinez lortu nahi bada.

Ekonomi eta gizarte-aldagarrien bilakaera negatiboak eta egoeraren larritasunak erreibindikazio honen garapen programatiko eta aurreranzko gauzapearen premia eta aukera exijitzen dituzte.

Funtsean, euskal eremuan, lurralde mailan integraturik, berezko gizarte eta ekoizpen-harremanetarako eredu bat -koherentzia nazionalekoa, eta interes eta asmo eraldatzaileen logikaren arabera sortzeko eta iraunarazteko ahalbideak edukiko dituen- erabakitzeko ahalmena daukan eskumen-inguru eta maila eskuratzea ahalbideratuko duten baliabideak lortzea da helburua.

Ekonomi eta gizarte-aldagarrien bilakaera negatiboak eta egoeraren larritasunak erreibindikazio honen garapen programatiko eta aurreranzko gauzapearen premia eta aukera exijitzen dituzte.

Garapen programatikoari dagokionez, gure erakundeak, gizarteak prezia ditzakeen eta euskal gizarte eta ekonomi gune baten benetako ahalbide arrazoitu eta argudiatuaren ikurra izango diren ekonomi egitarau eta irtenbideak gauzatzeko gogoetari edukin erantsi behar dio. Aipatu egitarau-lanketen ardatz konfiguratzaileetako batzuk aurreratzen ditugu hemen:

Ekonomi eta gizarte-arloei dagokieneguz, egungo markotik eratorritako eskumenak murrizak eta mugatuak dira.

*** Gaur egun Vascongadek eta Nafarroak dauzkaten eskumenez bidezkoa ez den ekonomi eta gizarte-boterea.** Ekonomi eta gizarte-arloei dagokienez, egungo markotik eratorritako eskumenak murrizak eta mugatuak dira. Izan ere, emandako eskumenetatik at geratzen da ekonomi eta finantza-boterearen zati garrantzitsu bat, Estatuaren titulartasun publikoa daukana eta administrazio zentralak bakar-bakarrik kudeatzen duena.

- Gure Herriaren oinarrizko industriaren atal adierazgarri eta garrantzitsua diren enpresek (AHV, ACENOR, AESA, PETRONOR, BW, ...) Estatuaren titulartasun eta kudeaketa hertsia eta soilak daukate.

- Bilbo eta Pasaiako portuek, Karga eta Deskargarako Estatu Sozietateek, aireportuek, RENFE eta Eusko Trenbideak-ek osatzen dituzten garraio sareak Vascongadak eta Nafarroaren eskumen-eremutik at daude.

- Hego Euskal Herrian diharduen finantza-sektore publikoa ere Estatuaren titulartasun eta kudeaketakoa da: ARGENTARIA finantza/banka-korporazio berria, hain zuzen.

- INEM, e.a.ek gizarte-politika, enplegu-politikarako oinarrizko instituzio-bilbapena osatzen dute, zerga eta finantza-gaindikotasun nabaria daukatelarik, -hauek ere- Vasc. eta Nafarroaren eskumen-eremutik erabat kanpo daudenak.

Egun estatuarenak diren industri jabegoak euskal eskumeneko bilakatzea.

*** Euskal Sektore Publikoa izatearen garrantzia.** Enpresa, finantza eta, beraz, eskumen jiteko Euskal Sektore Publikoa gizarte eta ekonomi gune integratu eta kohesionatua itxuratzeko prozesuko euskarri nagusia da. ESPak honako tresna hauen bidez eskuhartu behar du:

- Fisko-subiranotasunaren printzipiotik eratortzen den zergak biltzeko gaitasunean eta errenta benetan birbanatzeko gaitasunean oinarritutako aurrekontuak Gaur egun, Vascongadaketa Nafarroako autonomi administrazioen baliabideetarik asko murrizten dira itundu gabeko zergen eta kupuaren bidez, eta bestalde, fisko-subiranotasunik ez egoteak, autonomi instantziak Estatuak ezarritako tributu-egitura aldarazteko gaitasunik eduki dezaten eragozten du. Aurreranzko fisko-eraldaketa behar da, egungo ezarpenezko figurak birmodelatuz eta beste batzuketaz, eta birbanaketa biztanlegoaren sektorerik ahulenen alde bideratuz.

- Plangintzak egiteko beren beregiko gaitasun eta borondatea. Industri politikari dagokionez, ESParen eginkizuna, industri ekimen pribatu ezberdinak bertaratu beharreko gune izateko balio izango duen eredu edo industri eszenatoki bat itxuratzeko oinarritu behar da. Industri itxuraketa honen asmoak sektoreen arteko artikulazio hobea, ekoizpena eta gizartearen beharrezko arteko korrespondentzia handiagoa, ekoizpen-sektoreak eta kontsumoaren arteko erlazio orekatuagoak, e.a. izan behar dira. Euskal ekonomian ez dago koherentzia handirik kontsumo ondasunen sektorea behar bezain anitza ez delako; beraz, ekonomia egituratu eta integratuagoa lortu behar da.

- Euskal finantza-sektorea. Euskal administrazio publikoen aurrekontuetatik bereiz, baliabideak, instituzioak eta finantza-ente publikoak (Banku Publikoa,...) lortu behar dira, euskal hiritarren aurrekia eta ekoizpen-inbertsioaren arteko oreka egokia ahalbidetzeko xedez. Euskal Herrian finantza-sektore publikoa itxuratzeko oztopo handiak aurkitzen ditu eskumenei dagokienez (horra hor banku vascongado bat sortzeari buruzko eztabaida eta erreibindikazioa).

- Industri enpresa publikoa. Aurretiazko arazoa berori itxuratu beharra da, ez baitago. Honi dagokionez, aurrera egin behar da siderurgi sektorean partehartzea eta, gaur egun Estatuarenak diren eta goian aipatutako enpresen titulartasunaren eskualdaketa lortuz.

2.2.- LAN HARREMANETARAKO MARKO AUTONOMOA (L.H.M.A.)

LHMAk, politika ekonomiko eta soziala zehazten duten plano ezberdinak hartuko dituzten eskumnezko beste botereekin batera, funtsaz beteko du euskal gune ekonomiko eta soziala. Geure geroa erabakitzeko nolabiteko gaitasunaz hornitzeko beharrezko diren gutxienezko baliabideak edukitzea da helburua. Eskari eta exigentzia honek gizarteko beste arlo eta errealitateetatik (kultura, hezkuntza, arlo politiko/instituzionala) datozenekin bat egin eta Mugimendu osoaren ihardun eta estrategia kohesionatu eta funtsatzen ditu.

Biltzarrean ekintza sindikalari buruzko txostenean azaldu bezala, gizarte-beharrezkoak berak eskatzen du eta bertotik jaito da marko global juridiko politiko berriaren lorpena. Lan eta gizarte-eremuan eskari eta exigentzia hau *Lan Harremanetarako Marko Autonomoa* deritzan horretan zehazten da.

Biltzarreko txostenean LHMAari buruz mintzatzeko, ideia deskribatzeko, lan-antolamendu juridikoak kapitala eta lanaren arteko indar koerlazioaren egoera zehatz bat adierazten, definitzen eta zehazten duela esaten zen.

Lan-antolamendu juridikoak jatorri ezberdineko arau-maila bi dauzka: legegintza-jatorrikoa eta konbentziozko jatorrikoa (ugazaberia/mugimendu sindikala dialektikatik eratortzen dena, bi alde horien autonomia kolektiboaren ihardunean), eta negoziazio kolektiboaren bidez azaltzen da.

Enpresa, finantza eta, beraz, eskumen jiteko Euskal Sektore Publikoa gizarte eta ekonomi gune integratu eta kohesionatua itxuratzeko prozesuko euskarri nagusia da.

Geure geroa erabakitzeko nolabiteko gaitasunaz hornitzeko beharrezko diren gutxienezko baliabideak edukitzea da helburua. Eskari eta exigentzia honek gizarteko beste arlo eta errealitateetatik (kultura, hezkuntza, arlo politiko/instituzionala) datozenekin bat egin eta Mugimendu osoaren ihardun eta estrategia kohesionatu eta funtsatzen ditu.

**Lan eta gizarte-eremuan
eskari eta exigentzia hau
Lan Harremanetarako
Marko Autonomoa
deritzan horretan
zehazten da.**

**Negoiazio kolektiboan
iharduera sindikalak,
aldean autonomia
kolektiboaren arteko
dialektikaren adierazpena
den aldetik, daukan
garrantzia gutxietsi gabe,
LABek, sindikatu abertzale
eta eraldatzailea
izateagatik, bide
konbentzionalari
maltzurkeriaz eman nahi
zaion garrantzi
estrategikoa erlatibizatu
eta, beraz, estatuko
legegintza-marko
arauemalea euskal
eremura ekarriz era
aurrerakoi eta
progresiboan aldarazteko
helburua daukan
iharduera azpimarratu
beharra dauka.**

Legegintza-jatorriko antolamendua funtsean inguruko oinarriko baldintzak erabakitzen dituena da, iharduera sindikala aritzen den eremua zehazten duena eta, ekonomi eta, gizarte-eragilea den aldetik mugimendu sindikalari gizarte-aldagarriak zehaztu eta eraldatzeko eskaintzen zaion ahalmena bereziki adierazten duena.

Ondorioz, honakoa esaten zen azkenik -agian lineal eta eskematikoegia zen modu batez, pedagogikariak zirela eta-: legegintza-oinarriko markoa zenbat eta aurreratuago eta aurrerakoiagoa izan, negoziazio kolektiboaren bidez adierazitako ekintza sindikalak orduan eta birtualtasun handiagoa edukiko zuela. Eta alderantziz, inguruaren baldintzagarriak zenbat eta aurkakoago izan, bizi eta lan baldintzen aurrerapena eta, aldagarri garrantzitsuak aldean, eta beraz negoziazio kolektiboaren, autonomia kolektiboaren estrategiaren bidez aldarazteko birtualtasun eta ahalmena nabarmenki mugatzen zirela.

Txostenean honako ideia hau datza: bere iharduera gizarte-errealitatea zinez eta zintzoki aurrerakoa den norabidean eraldatzeko, edo eraldatzen laguntzeko kezka daukan sindikatu batek, kezka handiagoa -edo hein berekoa- eduki behar du inguruko baldintzak, politika/legegintza-jiteko neurriak sortzeko, bai eta aldean eta negoziazio kolektiboaren autonomia kolektiboaren bidez, iharduera sindikalerako tresnak garatzeko ere.

Beraz, txostena, ELAren strategiaren mugapenak ikustarazten saiatzen da.

Euskal Herriari dagokionez, ELA eta LABen jarrerak polarizatu egiten ziren, LABen ustez LHMA funtsean legegintza-ahalmenaren erreibindikazioa zela esanez, ELAren jarrera, aitzitik, sindikalismoaren eginkizunari buruzko bere iritziek eta gatazka nazionalean hartu duen jarrerak eraginik, autonomia kolektiboaren garapena eta, ondorioz, negoziazio kolektiboaren ihardun bereiztuaren sakonketa eta hedapena «lan harremanetarako berezko sistema» ranzko bere strategiaren ardatz nagusia bilakatzeko zelarik.

Honekin batera, ELAk jarrera honi eusten dion bitartean euskal langileen egiturazko arazoak (langabezia, behinbehinekotasuna, ondasunen banaketaren funtsezko aldarazpena, langileriaren banaketa soziologikoa bilatzea, lan merkatuan emakume eta gazteek pairatzen duten bereizkeri egoera, e.a.) konpontzeko beraren eskaintza estrategikoan akats nabari bat dago, nahiz eta mintzaldi/irudiari dagokionez gehiegi hitz egin, praktikan beraren strategiaren ardatz nagusia sorospidezko mailako elementu batean kokatzen baitu, indar koerlazio atzerakor eta aurkako batean.

Orduan azaltzen zen ondorioa honakoa zen, negoziazio kolektiboan iharduera sindikalak, aldean autonomia kolektiboaren arteko dialektikaren adierazpena den aldetik, daukan garrantzia gutxietsi gabe, LABek, sindikatu abertzale eta eraldatzailea izateagatik, bide konbentzionalari maltzurkeriaz eman nahi zaion garrantzi estrategikoa erlatibizatu eta, beraz, estatuko legegintza-marko arauemalea euskal eremura ekarriz era aurrerakoi eta progresiboan aldarazteko helburua daukan iharduera azpimarratu beharra dauka. Beraz, bi mutur -legeriari dagokiona eta konbentzionala- dauzkan estrategia baten aldeko apostua egiten da.

Lanari buruz lehenengo kapituluaren aidarazitakoaren ondoren (abaguneko elementuei buruz) Gobernu Espainiarrari askatasun sindikalaren aspekturik formalenei eraso egitera heltzea besterik ez zaio geratzen (honek Zuzenbidezko Estatuaren funtsezko aspektu formalak kolokan jarriko lituzkeelarik); baina, edonola ere, eta iruzkina gehiegizkoa izan bada ere, ez luke holakorik behar izango, hartu dituen neurriez nabarmenki hustu baititu kontratu eta kontrol-ahalmena, eskumen-euskarriak, legeriak mugimendu sindikalari eskuesten dion estatusa.

Mugimendu sindikalaren egitate-bidezko kontrol-galera behinbehinekotasunagatik egindako plantila-murrizketetan antzematen da, negoziazio kolektiboan behinbehinekotasunak ezartzen dituen distortsioetan alegia (ikus txostena, honi dagokionez). Hots, erakunde sindikalei formalki onetsitako kontratu-boterearen egitate-bidezko hustuketarekin batera, enpresariaren boterea hein berean sendartzen da. Beraz, indar koerlazioa langileen kalterakoa da kapitalarekiko.

Baina hauek ez dira ondorio bakarrak; benetako ondore maltzurak epe luzeagora gertatuz joango dira, neurri hauek klasearen beraren barne-osaketa moldatzen eta eratzen baitute, soziologikoki zatikatuz, dualizaziorantzko joera sustatuz, banandu eta desberdinduz; hau da, mugimendu sindikalaren ihardunarentzako oztopo gehiago ezartzen duen epe luzeko ondoreak sortarazten ditu.

Adibiderik argiena behinbehinekotasunarena da: seguraski, 1984ean inork ez zuen uste 7-8 urtean klasearen osaketak honen aldaketa erabatekoa izango zuenik (ez ahaztu euskal langilearen %50 langabezia edo behinbehineko lan batean dagoena).

Baliteke orain hobeto ulertu izana legegintza-neurriek inguruko baldintzak erabakitzeko daukaten ahalmena, ihardun-eremua aldarazteko beraien gaitasuna.

Zera adierazi behar da homi dagokionez: hautsi egin behar dugula, irispide luzeko edozein neurri kaltetutako langileen lan eta ekonomi baldintzetan sortarazten dituen ondore negatibo errealei buruzko ikerketa eta azterketak geldiarazteko inertzia; ondorioen azterketa, hartutako neurriaren ondorioz sortu den indar koerlazioen egoera berria eta mugimendu sindikalarengan daukan eragina ikertu arte luzatu behar da. Beraz, neurri atzerakorrei erantzunik ez emateak daukan kostua epe ertainerako ondorioetan isladatzen delako ideia geureganatu behar dugu.

Egia da euskal eremua klase-borrokarako gune autonomoa dena; ezker abertzalearen baiezen teoriko garrantzitsu bat dugu hau. Baina, klase-borrokaren kontzepzio murrizkor bat, eremu sindikaleko bere agerpena mugatua, erabiliz gero, lan harremanetarako gune autonomorik ez izateak, euskal markoan eta eremu sindikalean gertatzen den klase-interesen aurkaketaren adierazpen osoaren bidez erabaki eta eskuhartzeraz hiltzeko aukera murrizten edo mugatzen du.

LHMARIK ez egoteak euskal jiteko sindikalismoari, Estatuko sindikalismoarekiko aurkapenari dagokionez, egiturazko neurri eta politika atzerakorren aurrean esku hartu eta erabakitzeko nolabaiteko ahalmena lortzeko estrategia autonomoa eskuratzea eragozten dio.

Txostenean adierazi bezala, «iragan hamarkadako esperientziak erakutsi digunez, Hegoaldeko gizarte-eragileek ere ezin izan dute aldagarri garrantzitsurik sartu Estatu Zentraleko instituzio politikoek egindako ekonomi, gizarte eta lan-politikaren plangintzan eta burutzapenean». «Euskal langileen bizi eta lan-egoera zehazten eta erabakitzen duten oinarriko prozesuetarik bat ere ez dago euskal gizartearen eskuhartze eta erabakimenaren eremuan...»

Konbergentziarako Planari dagokionez, argi dago zer gertatzen ari den. CCOO-UGTK lortzen dituzten estrategia eta emaitzen menpean gaude praktikan (deialdia egun ezberdinetan egin izanak ez du zerikusirik adierazi zenarekin), eta badakigu hori zer den eta zer izango den. Egitate honek eta bere ondorioek benazko gogoeta exijitzen dute.

M-27aren ostean ELAK azaldutako jarrera oso adierazgarria da. Alde batetik, bere borondaterik-eza eta pragmatismo kritikagarriak bultzaturik, zalantzarik gabe, baina beste aldetik, seguraski, goian adierazitakoa etsirik barneratu izateagatik ere, ekintza sindikalerako hain fronte garrantzitsua zena lagatzea erabaki zuen. Praktikan, beraz, eta geure borondatea bestelakoa bada ere, ez dugun horren funtsezkoa den frontean esku hartu ahal izateko tresnarik.

Honela, bada, LHMA euskal sindikalismoaren garapenerako eta euskal langileen aurrerakuntzarako hil ala biziko beharizan bilakatu da.

Euskal sindikalismoak bere garapenerako eta, euskal langileen bizi-kalitatea zehazten duten egitate eta aldagarriei buruzko erabakiak hartzen dituzten instituzioen aurrean esku hartu eta eragiteko ahalmenaz edozelako estrategiak azaldatzea (aurkapen hutsa, aurkapena-negoziazioa, negoziatzioa,...) ahalbideratuko dion iharduera sindikalerako gune bat taiutzeko LHMA behar-beharrezko duela ondorioztatzen da, beraz, orain esandakotik.

Hots, erakunde sindikalei formalki onetsitako kontratu-boterearen egitate-bidezko hustuketarekin batera, enpresariaren boterea hein berean sendartzen da. Beraz, indar koerlazioa langileen kalterakoa da kapitalarekiko.

Neurri atzerakorrei erantzunik ez emateak daukan kostua epe ertainerako ondorioetan isladatzen delako ideia geureganatu behar dugu.

LHMARIK ez egoteak euskal jiteko sindikalismoari, Estatuko sindikalismoarekiko aurkapenari dagokionez, egiturazko neurri eta politika atzerakorren aurrean esku hartu eta erabakitzeko nolabaiteko ahalmena lortzeko estrategia autonomoa eskuratzea eragozten dio.

Aldeen autonomia kolektiboaren dinamikan oinarritutako iharduera sindikala bere lorpenei dagokionez zenbat eta eragingarriagoa izan, hartuko dugun markoa hainbat eta aurreratu eta aurrerakoiagoa izango da.

Gure iharduerak geure estrategia legegintza-markoaren lorpenerantz sendoagoki bideratzeko helburua eduki behar du; honi dagokionez, bada garaia sindikalismo abertzaleak bere berezko beharrizanetarako fronte bat eratu dezan, LHMA erreibindikatu eta beronetaranzko urratsak emateko xedez; orain arte egon ez den fronte bat, hain zuzen ere, gure Herriaren nazio-eskubideen aldeko borrokari indargarri, osagarri eta lagungarri izango zaiona.

Halaber, ELAk lan harremanetarako marko autonomo bat taitzeko asmoz erabiltzen duen strategiaren mugapen eta askiezak aztertutakoan, hauxe esan behar dugu: PRECO, L.H.K. bide konbentzionalaren garapenaren aldeko apostua egiten badugu ere, hau ez da gure strategiaren ardatz bihurtu behar.

Txostenean argi azaltzen ziren negoziazio kolektiboaren ihardun bereiztuaren hedapena beharrezkotzat jotzeko kariak, baina honek ez digu berorren garrantzia sakratu edo absolututzat harrarazi behar.

Bestalde, aldeen autonomia kolektiboaren ihardunaren bidez garatutako iharduera sindikalak bere lorpenetan daukan ahalmena zenbat eta eraginkorragoa izan, orduan eta aurreratu eta aurrerakoiagoa izango da eskuratzen dugun markoa.

Gure iharduerak geure estrategia legegintza-markoaren lorpenerantz sendoagoki bideratzeko helburua eduki behar du; honi dagokionez, bada garaia sindikalismo abertzaleak bere berezko beharrizanetarako fronte bat eratu dezan, LHMA erreibindikatu eta beronetaranzko urratsak emateko xedez; orain arte egon ez den fronte bat, hain zuzen ere, gure Herriaren nazio-eskubideen aldeko borrokari indargarri, osagarri eta lagungarri izango zaiona.

Argi dagoenez, horrelako jauzi bat emateko aukera erritmo politikoaren erabat menpean dago, baina oso kontutan hartu behar dugu norabide horretaranzko mugimendu sindikala sortzeak erritmoa aldarazten eta denbora politikoa geure alde jartzen lagundu ahal duela.

Bestelako gaia da, mintzaldia gaindituz aipatu norabideranzko mugimendua artikulatu ahalizateko geure ahalbideak balioztatzea, batez ere ELAren jarrera eta prestutasunaren araberakoak izango direnak.

3.- ESKUHARTZEKO FRONTEAK

3.1.- EKINTZA INSTITUZIONALA

3.1.1.- ESKUHARTZE INSTITUZIONALARI BURUZ

III. Biltzarrean ekintza sindikal eta errebindikatiboaren osagarri eta euskarri jitea eman genion fronte instituzionaleko gure eskuhartzeari. Eskuhartze honen helburua euskal langilegoa ukitzen duten gizarte eta lan arloko arazo guztiak aztertu eta konpontzeko orduan sindikalismo abertzaleak berebiziko protagonismoa edukitzea ahalbideratuko duen Euskadi mailako instituzio-bilbapen bat egituratzeko oinarriak ezartzea da. Sindikatuak daudeneko organo instituzionalen gaurko dinamika guztiz eskasa dela esan dezakegu. Instituzio horiek konstituzio eta estatutuak mugatzen duten eremuan barnesarturik daude eta horrek ezinezko bihurtzen du euskal mugimendu sindikalak iharduera instituzionala bere helburuak lortzeko eraginkorki erabiltzea.

Etorkizuneko marko juridiko-polikoaren barnean, non euskal instituzio naizonalek oso eskumen maila altua izango baitute, aipaturiko organo instituzional horiek erabateko eraginkortasuna eta garapena erdietsiko dutelakoan bagaude ere, LABi ezinbestekoa zaio instituzio horiei begirako partehartze neurtu eta kalkulatu bat berrestea. Partehartze horren oinarriak arazoei buruzko geure irizpideak izango dira, gure jarreretan atzerapausurik eman edo utzikeriarik egon gabe, baina «bereizgarritasun sindromea» baztertzuz.

Bestetik, gure partehartze instituzionalak lan harremanetarako estatu-eredua pitzatuz joatera joko du, negoziazio kolektiboaren ihardun berezian sakonduz. Erakunde instituzionalek, beraz, aldean autonomia kolektiboa suspertzeko balio beharko dute, euskal langilegoaren jarreraren aurrerapena ekarriko duten akordioak faboratuz baina, langile mugimendua eta ugazaberiaren arteko indar koerlazioa funtsez aldatzeko, dinamika konbentzionala berez nahikoa ez dela ahaztu gabe. Hori dela eta, lege eta arau arloko aldaketan beharra azpimarratu behar dugu.

3.1.2.- PRECO II-ri BURUZ

III. Biltzarrean onetsi genuen Ekintza Sindikalari buruzko txostenak PRECO II gaia jorratuko duen eztabaida hertsia aurrera eramateko oinarriak ezarri zituen. Hortaz, txosten horretako oharpide orokorretara joko dugu eta bera abiapuntutzat harturik, PRECO II dela eta LABek hartu behar duen behin betiko jarrera zehazteko beharrezkoak diren gogoeta-elementuak azalduko ditugu.

A.- PRECO II auzia hausnarketa maila edo ikuspegi ezberdinetatik azter daiteke, eztabaidaren atalak honako hauek izanik:

A.1.- Laburbilduz, PRECO II talde zein banakako lan gatazkak konpontzeko borondatezko prozedurei buruzko Konfederakundearteko Akordioa dela esan dezakegu. Definizio hau abiapuntutzat harturik, burura datorrigun lehenbiziko galdera honakoa da: Beharrezkoa edo, bederen, komenigarria al da lan auziak konpontzeko epaiz kanpoko bideak garatuko dituen araupeketak ezpezifikorik? Aurrerago egingo ditugun oharpideei kalterik egin gabe, erantzunak baiezkoa izan behar du. Hona hemen horren zioak:

a) Azken urteotako esperientziak erakutsi digunez, indarrean dagoen lan harremanetarako sisteman, talde zein banakako lan- gatazketarik asko epaibidez konpontzen da; beraz, lan gatazkakortasuna lar epaibidezaturik dago, eta denok dakigu zeintzuk diren horren ondoreak: epai-konponbidea berandu iristen da gehienetan, eta era okerrean askotan, eta horrek kalte handiak ekartzen dizkie alde interesatuei, langileei, batez ere, berauek baitira gehienetan auzibideratzea eskatzen dutenak. Horrenbestez, epaiz kanpoko konponbideen lehenbiziko abantaila lastertasuna da, eta hau funtsezkoa da enplegatu publikoek administraziozko liskarruzien aginpideari aurkeztutako galdapenei dagokienez. Aurrerago berriro arituko gara epai-bideari uztearen komenigarritasunaz.

III. Biltzarrean ekintza sindikal eta errebindikatiboaren osagarri eta euskarri jitea eman genion fronte instituzionaleko gure eskuhartzeari. Eskuhartze honen helburua euskal langilegoa ukitzen duten gizarte eta lan arloko arazo guztiak aztertu eta konpontzeko orduan sindikalismo abertzaleak berebiziko protagonismoa edukitzea ahalbideratuko duen Euskadi mailako instituzio-bilbapen bat egituratzeko oinarriak ezartzea da. Sindikatuak daudeneko organo instituzionalen gaurko dinamika guztiz eskasa dela esan dezakegu.

Gure partehartze instituzionalak lan harremanetarako estatu-eredua pitzatuz joatera joko du, negoziazio kolektiboaren ihardun berezian sakonduz.

Laburbilduz, PRECO II talde zein banakako lan gatazkak konpontzeko borondatezko prozedurei buruzko Konfederakundearteko Akordioa dela esan dezakegu.

Lan gatazkakortasuna lar epaibidezaturik dago.

Administrazio-instituzioen (Lan Agintaritza, Lan Ikuskaritza), eta gatazken aginpidezko konponketa heteronomoaren bidez Estatuak gauzatzen duen praktika eskusartzailearen aurrean, mugimendu sindikalarentzat hobe da gatazkan dauden aldean autonomia kolektiboaren printzipioan oinarritutako borondatezko auzi-konponbiderako prozedurak ezartzea.

Beharrezkoa al da, gaurgero, horretan lanean hastea oraingo lan/gizarte- bilbapen instituzionalak eta, batik bat, Lan Harremanterako Kontseiluak, daukan eraginkortasuna probetxatuz ala komenigarriagoa da arlo horretako ekimen oro marko juridiko/politiko berria behin betiko taiutu arte atzeratzea?

b) Administrazio-instituzioen (Lan Agintaritza, Lan Ikuskaritza), eta gatazken aginpidezko konponketa heteronomoaren bidez Estatuak gauzatzen duen praktika eskusartzailearen aurrean, mugimendu sindikalarentzat hobe da gatazkan dauden aldean autonomia kolektiboaren printzipioan oinarritutako borondatezko auzi-konponbiderako prozedurak ezartzea. Honelako prozeduretan gatazkek ukitutako aldeei euren dagokie protagonismoa auziaren autokonposaketan, batik bat komenio kolektiboaren administrazio, interpretazio, aplikazio eta betetzeak sortarazitako gatazka kolektibo zein banakako konponketarekin zerikusia daukan orotan. Bestetik, kontraesankorra da arauzko botere autonomo bat egotea gatazka kolektiboak negoziatu eta burutzeko, eta beraien administrazioa (hots, interpretazioa eta aplikazioa) Estatuaren aginpidezko organoen esku egotea. Beraz, epaiz kanpoko bideen xedeak honakoa izan behar du: autonomia kolektiboari, dagokion protagonismoa itzultzea komenio kolektiboaren interpretatu eta aplikatzerakoan. Aurrekoa kontutan harturik, positibo deritzogu gatazkek aldeek beraiek zuzenean edo elkarren adostasunez izendatutako hirugarrenen bidez (tartekaritza, kasu) konpontzeko bideak egoteari, administrazioaren eskusartzea baztertuz.

c) Nazioarteko testu eta arauak (bereziki, Europako Gizarte-Karta eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen -OIT- 154 Komenioa) lan gatazken konponbide hauek gorpuztu eta garatzeko aholkua ematen diete gizarte-solaskideei, negoziazio kolektiboaren suspertzeko tresnatzat baitaizkate. Izan ere, industri alorrean garatuak diren herrialdeetako sindikatu gehienak (ia denak) gatazken epaiz kanpoko konponbideen aldekoak dira.

A.2.- Ekintza Sindikalari buruzko txostenean jasotzen denez, Ezker Abertzaleak bultzatzen duen egitamu sozio-politiko orokorrean lan harremanetarako marko autonomo aurrerakoi eta aurreratu bat lortzea da lan eta sindikatu-harreman arloko erribindikazio nagusia. Aurreko gogoeten hariari jarraituz, eta LABek lan harremanetarako proposatzen duen ereduak lan gatazken epaiz kanpoko konponbideak eskaini behar dituela azpimarratu ondoren, hona hemen gaur egunean erantzun behar dugun galdera: beharrezkoa al da, gaurgero, horretan lanean hastea oraingo lan/gizarte- bilbapen instituzionalak eta, batik bat, Lan Harremanterako Kontseiluak, daukan eraginkortasuna probetxatuz ala komenigarriagoa da arlo horretako ekimen oro marko juridiko/politiko berria behin betiko taiutu arte atzeratzea? Lehen aukeraren alde jo behar dugu, argi eta garbi. Eta horrela eginez gero, gaurtik bertatik hasi beharra dago horrek sor ditzakeen arazoak eta berorien aurreko jarrera seriozki aztertzen, geure irizpideetan oinarritutako alternatiba zehatzak proposatuz eta, derrigorrezkoa denez, tronpatzearen arriskua geure gain hartuz. Bigarren aukerak, hau da, eztabaida «sine die» atzeratzeak, egungo abagunean bigarren mailakotzat jotzen diren gaietan gure indarrak ez xahutzea esan nahi du. Baina badakigu, horrela jokatuz gero, gainerako mugimendu sindikalaren eskuetan uzten duguna lan gatazken konponbide alternatiboaren tramankulu osoaren itxuraketa eta garapena. Jarrera hori, goian aipatutakoaz gain, honako oharpide hauetan oinarritzen da:

a) Lan harremanetarako marko autonomoa nazio subiranotasuna berreskuratzeko borrokaren banean dagoen erribindikazioa delarik, hau lortzeko funtsezko eta erabakiorra izango da Estatuaren aurkako borrokaren estrategia orokorraren barruan, borroka mota ezberdinak era egokian elkarri lotzea. Ildo beretik, berriro azpimarratu nahi dugu Ekintza Sindikalari buruzko txostenean jasotako oinarritzko ideietarik bat: lan harremanetarako marko autonomoak Euskal Nazio Instituzioek lan, gizarte eta ekonomi arloan arauemate-gaitasuna eduki behar dutela esan nahi du, batez ere. Hala ere, euskal eremuko negoziazio kolektiboaren ihardun bereizi bat, hemen eta gaur, positiboa da sindikalismo abertzalearen garapenerako eta, negoziazio kolektiboaren markoak zentralizatzeko egiten ari diren saioak baliogabetzeko. Beraz, LABeko kideok, atala osotasunarekin nahasi gabe, lehen uneko azterketan behintzat, positiboki balioetsi behar ditugu estatu-markoa hautsi eta negoziazio kolektiboaren ihardun bereizian aurrerapausuak ematea ahalbideratzen duten Akordioak. Akordio hauek, PRECO II bereziki, erabat eskasak dira berez LHMA taiutzeko baina mesedegarriak izan daitezke helburu hori lortzeko. Izan ere, PRECO IIren urraskako garapenak gizarte-aginpideak egun betetzen dituen eginkizunen murrizketa eta Lan Ikuskaritzaren eskumenetako batzuen desagerpena dakartza epe ertainera. Ondorioz, lan harremanen bilakaerari

dagokionez, gaindikotasun handikoa izan daitekeen gertakaria dugu hori. Beraz, ez dugu PRECO II, LHMA lortzeko gure estrategiaren garapena eragozten duen oztopotzat hartu behar. Honako galdera hau planteatu behar dugu: Zentzuzkoa al da lortu nahi dugun negoziazio prozesutik sortuko den marko juridiko-politikoak, PRECO II n gatazkak ebazteko araupeturiko prozeduren izaera eta eginkizunak errotik, edo funtsean, aldaraziko dituela pentsatzea? Sena erabiliz, egoera juridiko-politiko berriak baliabide hauei eraginkortasun handiagoa eman, gerta daitezkeen akats eta disfuntzioak zuzendu, eta aplikazio-eremua Hegoalde osora hedatuko duela esan daiteke, baina funtsean, oraingo prozeduren jarraipen eta garapenak iraungo dute. Edonola ere, komeni al zaio LABi orain gai hau alde batera utzi eta, lan harremanen sistemari -esan bezala- berrikuntza sakona ekar diezaioketen prozedurak taiutu eta kudeatzeko zeregina gehiengodun sindikalismoaren gainontzekoaren eskuetan lagatzea?

b) Bestalde, PRECO IIIk adiskidetzaille, bitartekari eta tartekarien izendapenetan profesionari-zerrenda kontzentzuatuak eginez esku har dezaten ahalbideratzen die erakunde sindikalei. Honek zera adierazten du: mugimendu sindikalak protagonismo handia daukala lan gatazkak ebazteko epaiz-kanpoko prozeduren kudeaketa eta jarraipenean, Gizarte Epaille eta Lan Ikuskatzaileen izendapenean, ordea, inolako protagonismorik ez dagoelarik. Izendapen hauek Estatu-boterearen menpean daudenez, gizarte-eragileek, zeharreko bidez, Estatuaren eskumen eskusiboen sail bat kentzen diotela ondoriozta daiteke, euskal nazioaren ikuspegitik batere arbuigarria ez dena.

A.3.- PRECO IIIk gure eskuhartzearen funtsezko aspektuetan eta aldarrikatzen dugun eredu sindikalean izango duen eraginari dagokionez, honako gogoeta hauek azalduko ditugu:

a) Greba langileriak bere interesak defendatzeko daukan tresna nagusia delarik, oso garrantzitsua da PRECO II n greba eskubidearen ihardunari buruz araupeturiko prozedurek eduki dezaketen eragina aztertzea. PRECO I en arabera erakunde sinatzaileek, ezein greba egin aurretik, adiskidetzalla lortzen saiatzeko konpromezua -beharrezko izanez gero adiskidetzaillea derrigorrez izendatuz ere- hartzen zutelarik, PRECO IIIk, aitzitik, ez du greba eskubidearen ihardunean, funtsean behintzat, esku hartzen edo berori baldintzatzen. Aipatu behar da, honetan greba modu ezberdinez tratatzen dela adiskidetzalla, bitartekaritza edo tartekaritza den arabera. Tartekaritzarako ezik, prozedura bati hasiera emateko PRECO IIIk ez du grebarako deialdia deuseztu izana exijitzen. Adiskidetzalla hertsatu izan arren, lehen egina ez zen grebarako deialdia egin daiteke ere. Honela gertatzera, ordea, bitartekariari bitartekaritza bertan behera utz dezan eskatuko zaio, bi aldeek -gehiengoaren erabakiz- prozedura segiaraztea eskatzen ez badiote. Tartekaritzaren kasuan, berriz, PRECO IIIk ezartzen duenez, tartekaritzaren aurretiko menpekotasun-aktak «garatzen ari diren edo deitu diren grebak zein ugazaberi itxierak eten» egin behar dira. Araupeketa hau bat dator gatazka kolektiboaren prozedura araupetzen duen arautegiarekin, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4eko 1977/17 Erret Dekretu-legearekin alegia, honen 17. art. ak «langileek lan gatazka kolektiboaren prozedura erabiltzen dutenean greba eskubidea erabiltzerik izango ez dutela» baitio. Argi dago, beraz, PRECO IIIko tartekaritza-prozedura adostezina dela greba eskubidearen ihardunarekin, baina batera ezintasun hau lehen ere bazegoen eta ia eztabaidatzeke onartzen zen. Adibidez, enpresa edo sektore batean ELA, UGT eta CCOO sindikatuak gatazka jakin bat tartekaritza pean jartzea erabakitzen duten bitartean, LABek erreibindikazio berberei laguntzeko greba batera deitu edo egitea planteatuz gero, indarrean iraungo du LABek grebara deitzeko daukan eskubideak, sindikatuak daukan funtsezko eskubide bat baita, gainontzeko sindikatuak bitartekaritza nahiz tartekaritza prozedurari ekiteagatik ezin eragotz edo muga daitekeena. Beste kontu bat litzateke LABek bakarrik deitzen duen greba horrek presioa egiteko edukiko lukeen benetako gaitasuna; baina hau unean-uneko indar koerlazioaren arabera dago soilik.

b) Oraingo gai honi buruz LABek aztertutako aurreko lanetan PRECO IIIk, besteak beste, lan harremanak sindikaltzeko helburua daukala adierazi da, hots, sindikatuak langileek euren ekintza erreibindikatio eta sindikala bideratzeko daukaten tresna

Lehen uneko azterketan behintzat, positiboki balioetsi behar ditugu estatu-markoa hautsi eta negoziazio kolektiboaren ihardun berezian aurrerapausuak ematea ahalbideratzen duten Akordioak. Akordio hauek, PRECO II bereziki, erabat eskasak dira berez LHMA taiutzeko baina mesedegarriak izan daitezke helburu hori lortzeko.

PRECO IIIk protagonismo handia eskaintzen dio Mugimendu Sindikalari lan gatazkak ebazteko epaiz-kanpoko prozeduren kudeketa eta jarraipenean, Gizarte Epaille eta Lan Ikuskatzaileen Izendapenean, ordea, inolako protagonismorik ez dagoelarik. Horrela, beraz Estatuarenak soilik diren eskumeak geureganatu egiten ditugu.

bilakatu nahi dituela, langilearen bestelako antolakuntza-erak, enpresa-batzorde eta eskuorde independenteen koordinadorak kasu (batzuetan, autoantolakuntza eta asanblada bidezko mugimendua abstraktuki aldarrikatzen duten bulego laboralistekin zerikusia dutenak), baztertuz edo murriztuz. Honaino heldutakoan, lan arloko bizimodua sindikaltzeari inolako muzinik egin behar ez diogula esan behar dugu, hain zuzen ere gu sindikatua garelako (eta ez besterik), eta sindikatua garen aldetik mugimendu sindikaleko partaide garelako. Diogun hori, esan beharrik gabe doan gauza jakina dela pentsatuko du hainbatek, baina LABen aburuz, sindikatua langileen eraketarako bide «naturala» da, eta ez abagunearen arabera eraketa-tresna soil bat. Eta hori bat dator gure III. Biltzarrean onetsitako Ekintza Sindikalari buruzko txostenean adierazi genuenarekin, alegia: gure iritziz, langileen ordezkari organo baterakoia dira enpresa eta lantokietan esku hartzeko tresna nagusia. Ildo honetatik, ELA eta UGTren aburuz (CCOO ez horren argiro) aipatutako sindikalizazio horrek enpresa batzordeak edukirik gabe uztea eskatzen duela azpimarratu beharra dago, negoziatu eta ordezkatzeko ahalmena atal sindikalen esku utziz. LABek ezin du inolara ere planteamendu hori onartu, gure ustez ordezkapen modu biak (hautapenezkoa eta sindikala) elkarren osagarriak direlako eta ez elkarren lehiakideak edo hautabidezkoak.

B.- Har itzazue aurreko gogoeta orokorrak PRECO Iren atalik arantzetsu eta gatazkakorrenetarik buri buruzko eztabaidarako sarrera gisa. Hona hemen bi atal horiek:

B.1.- Komenio edo Itunetako Batzorde Parekideen eginkizuna. Batzorde Parekide horien berezko eginkizunak komenioaren klausulen aplikazio eta interpretazioa dira eta, oro har, beraren administrazioarekin zerikusirik daukan guztia. Lehenengoz, eta aldean autonomia kolektiboa errespetatuz gero, LABen aldetik ez dago eragozpenik, itundutakoaren kudeaketa eta administrazioarekin loturik dagoen orotan, eta batez ere komenioaren klausulen interpretazio, aplikapen eta segimenduan, Batzorde Parekideek eginkizun nabarmen bat bete dezaten. Baina hori esateaz batera agerian jarri behar dugu batez ere ELAk Batzorde Parekideak berehalako helburu bikoitz batetarako erabiltzeko asmoa daukala: «itunzaleak ez diren» sindikatuen (LAB bereziki) negoziazio kolektiborako eskubidea murriztu edo baliogabetzea, eta enpresa batzordeen eskumenak ezabatzea.

Azken urteotan Batzorde Parekideak formula huts bat baino ezer gutxi izan dira, Langileen Estatutuakin posatutako «estilo klausula» bat, gehienetan berba zalantzaragriez araupetuak eta, aurrekoaren ondorioz, eraginkortasun praktikorik gabekoak. Hala ere, Langileen Estatutuaren 85. artikulua, Batzorde Parekideak komenioaren interpretazio eta aplikazioa gainditzen dituzten bestelako eginkizunez hornitzeko aukera ematen du. Esaterako, Batzorde Parekideak «iraxkitzen zaizkien gai oroz arduratzeko» (LE) eratzen direla esaten da; PRECO II honekin bat dator, bere 4. artikuluan honakoa baitio: «komenio edo itunak iraxkitzen dizkion bestelako eginkizunei kalterik egin gabe, Batzorde Parekideak bere gain hartuko du (ezein komenio edo itunen interpretazio edo aplikazioak sortutako) gatazkak konpontzeko eginkizuna». Bestetik, jakina da komenio kolektiboak izenpetzen dituzten sindikatuek soilik daukatena komenioek ezarritako Batzorde Parekideetako partaide izateko eskubidea, izenpetu ez duten sindikatuak Batzorde horietatik kanpo geratzen direlarik. Horiek horrela, eta aurreoinarri horiek abiapuntutzat harturik, ELAren estrategiaren funtsa Batzorde Parekideei enpresan negoziatzeko ahalmena eranstea da, ez soilik itundutakoaren edukinarekin loturik edo bertatik eratorritako auzietan, negoziagarri den gai orotan baizik. Horren azkeneko ondorea Batzorde Parekideak Batzorde Negoziatzaile bihurtzea da, horren ondorioz komenioa sinatu ez duten sindikatuak batzordeetatik kanpo geratzen direlarik.

Gainera, lan-baldintzen funtsezko aldarazpenekin zerikusia daukaten gatazken konponbidea Batzorde Parekideen esku utziaz, Langileen Estatutuaren 41. artikulua arabera dagozkien ahalmenak kentzen zaizkie enpresa batzordeei. Batzorde Parekideen «erabilpen okerra»ren alde egiteko ELAk erabiltzen duen argudio nagusia hau da: taiuzkoa da «negoziazio iraunkorrerako» sistema bat egituratzea, solaskidetzeta eta ihardun negoziatzailea komenio bakoitzaren indarraldi osoan zehar mantenduko dituen, laburragoa edo luzeagoa izan daitekeen berriztatze-aldira mugatu beharrean. Negoziazio iraunkorraren kontzeptu abstraktuari irizten diogunari kalterik egin gabe,

ELAren estrategiaren funtsa Batzorde Parekideei enpresan negoziatzeko ahalmena eranstea da, ez soilik itundutakoaren edukinarekin loturik edo bertatik eratorritako auzietan, negoziagarri den gai orotan baizik. Horren azkeneko ondorea Batzorde Parekideak Batzorde Negoziatzaile bihurtzea da, horren ondorioz komenioa sinatu ez duten sindikatuak batzordeetatik kanpo geratzen direlarik.

ezezko borobila eman behar diogu ELAk (baita UGT eta CCOOk ere) lan harremanak «sindikaltzeko» bultzatzen duen bide horri, zeren eta, «izatez», negoziazio kolektiboa atal sindikalen esku uztea baitakar, enpresa batzordeak garrantzi handirik gabeko arazoak aztertetzeko (ez negoziatzeko) mugatuz eta «negociazio iraunkorra» izaera eta praktika itunzalea duten sindikatuen esku utziz soilik, bertan ugazaberiarekiko presio, mobilizazio eta aurkakotasun elementurik ia bat ere ez dagoelarik.

Honez gain, bestalde, ELAk Batzorde Parekideak sustatuz, lehen aipatutako helburu bikoitza lortu ezezik, enpresako negoziazio kolektiboari dagokionez Estatuan indarrean dagoen sistema praktikan aldarazteko bidea zabalduz joan nahi du. Adierazpen honek azterketa zehatzagoa eskatzen duen arren, sailatal sindikalak negoziatzeko legebideztatuz-hedapenak edo ordezkarietasunak hala ahalbideratzen duen enpresetan izaera baztergarriz, gainera- eta horrela negoziaturiko komenio kolektiboek itxitako Batzorde Parekideen eginkizunak sustatuz, negoziazio kolektiboa, bai konfederakundearteko eremutik bai enpresa eta lantokitik bertatik ere, erabat sindikaltzeko haien helburua epe ertainera beteko litzatekeela baieztateke, Langileen Estatuaren III. titulua aldatu, edo hobeto esateko, euren estrategia sindikalera egokiturik.

Atal honen ondorio gisa, beraz, PRECO IIk ezartzen duen Batzorde Parekideen berrindarketa, hasiera batean behintzat positibotzat jo behar delarik ere, gure iharduera sindikala larriki nahasten duen eragile gisa erabil dezaketela erantsi behar da, negoziazio kolektiboari dagokionez batez ere, eta enpresa eta lantoki mailan bereziki.

Azkenik, honakoa adierazi behar da: PRECO IIren garapenean, banako enpuzketarako prozedurei buruzko oinarriko aukerak zehazteko xedez, Lan Harremanetarako Kontseiluan (LHK/C.R.L.) izandako aurrezko elkarriketetan sindikatu guztiek arbuia dituztela Batzorde Parekideak, adiskidetzat/bitartekaritza eta tartekaritza organo gisa; beraz, honi buruz geneukan kezka funtsa galtzen du, ELA, UGT eta CCOO sindikatuen aurkako irtenbideak maliobrari, bai eta ustelkeriari ere, zabalik utz diezazkiekeen bide ugariak ikusirik.

B.2.- Prozeduraren hautaketari buruz. PRECO IIin, adiskidetzat, bitartekaritza eta tartekaritza-prozedurak Konfederakundearteko Akordioa sinatuko duten erakundeen bidez, hots, sindikatu sinatzaileen bidez, eragiteko derrigorrezkotasuna ezartzen du. ELA, UGT eta CCOOk ere, beren aldetik, banako enpuzkak Akordioa sinatuko duten erakundeen bidez izapidetzeko interesa daukate. Lan harremanen ustezko «sindikaltzea» dugu aurrean berriro.

Gai hau bigarren mailako edo formaltzat jo daitekeen arren, oso eragin garrantzitsuak eduki ditzake, banako enpuzketan batez ere. Izan ere, bezerokeria sindikala sustatu eta ia-derrigorrezko afiliatorako oinarriak ezartzen ditu. Erraz asma ditzakegu sindikatuek sailatal sindikal batera edo sindikatuaren egoitzara bertara jotzen duen langileari egingo dizkioten «iradokizunak» beraren gatazka konpontzeko prozedurari ekin dakion, gutxiengodun zenbait sindikatuk lan harremanen goranzko «burokratizazioa» kritikatzeko argudio ezin hobea edukiko dutelarik.

LABek, alde interesatuek PRECO IIin ezarritako prozedurara libreki jo ahal izatea defendatu behar du inolako anbiguotasunik gabe, hau da, funtsik ez daukan ezein baldintzagarri onartzeke.

C.- Lan gatazka ebazteko epaiz-kanpoko baliabideak edukitzearen komenigarritasuna azaldutakoan, beroriek lan harremanetarako eredu aurrerakoi batean eduki beharko luketen eginkizuna zehaztu behar da.

Ez gatoz bat gehiengodun gainontzeko sindikatuek defendatzen omen duten helburuarekin, hots, gizarte-agingpidea gatazka ebazteko organo gisa pixkanaka-pixkanaka desagertaraztearekin. Honelako prozedurak, eta PRECO II bereziki, ez ditugu alternatiba orokor eta Gizarte Agingpidearen ordezkotzat jo behar. Aitzitik, aldeei langileei eta beraien ordezkarietate batez ere- euren borondatez eta gatazka zehatzaren ezaugarri espezifikoaren arabera, arazo konpondu ahal izateko prozedura egokiak eskaintzea da helburua. Honela, bada, zenbait interes-gatazka kolektibotan bitartekaritza

Ezezko borobila eman behar diogu ELAk (baita UGT eta CCOOk ere) lan harremanak «sindikaltzeko» bultzatzen duen bide horri, zeren eta, «izatez», negoziazio kolektiboa atal sindikalen esku uztea baitakar, enpresa batzordeak garrantzi handirik gabeko arazoak aztertetzeko (ez negoziatzeko) mugatuz eta «negociazio iraunkorra» izaera eta praktika itunzalea duten sindikatuen esku utziz soilik, bertan ugazaberiarekiko presio, mobilizazio eta aurkakotasun elementurik ia bat ere ez dagoelarik.

PRECO IIk, prozedurak sindikatu sinatzaileen bidez eragiteko derrigorrezkotasuna ezartzen du. LABek, alde interesatuek PRECO IIin ezarritako prozedurara libreki jo ahal izatea defendatu behar du inolako anbiguotasunik gabe, hau da, funtsik ez daukan ezein baldintzagarri onartzeke.

**Lan gatazkak ebazteko
baliabideen aniztasunaren
komenigarritasuna
azaltzen gara. Bide-
aniztasun honek, PRECO
IIn araupeturiko
prozeduretako edozein
norberaren borondatez
erabili, edo epai-bideari,
bai eta noizbait Lan
Ikuskaritzari ere, heltzeko
aukera ekar dezake,
irtenbideetako ezein ere
era baztergarrian aurkez
ez dadin.**

**PRECO Iiren erabilpena,
sindikatu garen aldetik
daukagun karakterizazioa
eta esku hartzeko gure
ildoa zehazten dituzten
funtsezko elementuen
araberakoa izango da.
Hau da, LABentzat
borroka eta mobilizazioa
esku hartzeko
lehentasunezko baliabide
ordeztezinak direlarik,
gatazka zabal bat gertatuz
gero eta indar koerlazioak
hala ahalbideratzekotan,
LABek aurkapenezko
sindikalismoaren ohizko
tresnez esku hartuko du.**

**Sindikatuarteko gure
harremanak Hego Euskal
Herrian, hemen
diharduten erakunde
sindikal guzti-guztiei
zabalik daude**

izango da ebazpiderik egokiena, honelakoetan tartekaritzak salbuespenezko izaera hartuko duelarik. Gatazka kolektiboa jite juridikokoa bada, ordea, berdin-berdin balio dezakete epai-bideak zein zuzenbidezko tartekaritzak. Honi dagokionez, gatazka juridiko ororen konponbiderik egokienak -gatazka kolektiboa zein banakoena izan- ez du zertan PRECO Iiren prozeduretako bat izan behar. Eman dezagun, adibidez, askatasun sindikalerako eskubidearen babesari buruzko galdapen bat, LABeko afiliatu edo sailatal sindikalen bat ustez baztertu izateagatik -sarritan gertatzen dena-; gai honen izaera bera dela eta, negoziazioaren bidez ez da erraz konpontzerik egongo (negoziazioa trikimaina gisakoa ez bada, behintzat), eta epai-bidea izango da seguraski egokiena.

Beraz, funtsean, lan gatazkak ebazteko baliabideen aniztasunaren komenigarritasuna azaltzen ari gara. Bide-aniztasun honek, PRECO IIn araupeturiko prozeduretako edozein norberaren borondatez erabili, edo epai-bideari, bai eta noizbait Lan Ikuskaritzari ere, heltzeko aukera ekar dezake, irtenbideetako ezein ere era baztergarrian aurkez ez dadin.

Ildo honi jarraiki, PRECO IIn araupeturiko prozedurak erabat borondatezkoak direla adierazi behar da, eta bi balizkotan baino ez da azaltzen bitartekaritzara jotzeko derrigorrezkotasuna: aipatu betebeharra komenio edo itun kolektibo batean beren beregi ezarri denean eta, negoziazioak hasi zirenetik sei hilabetetik gora iragan denean, aldeatariko baten gehiengoak prozedura eragin, eta azken hirurogei egunetan negoziatorik egon ez bada. Pentsatzekoa den bezala, beti egongo da bitartekariaren idatzizko proposamena onartu edo errefusatzeko aukera.

PRECO Iiren esannahiari buruzko gairik garrantzitsuenak aztertutik, ideia bat azpimarratu beharra ikusten dugu -nahiz eta gure artean onarturik egon-: PRECO Iiren erabilpena, sindikatu garen aldetik daukagun karakterizazioa eta esku hartzeko gure ildoa zehazten dituzten funtsezko elementuen araberakoa izango da. Hau da, LABentzat borroka eta mobilizazioa esku hartzeko lehentasunezko baliabide ordeztezinak direlarik, gatazka zabal bat gertatuz gero eta indar koerlazioak hala ahalbideratzekotan, LABek aurkapenezko sindikalismoaren ohizko tresnez esku hartuko du.

D.- Nafarroako egoerari buruz. Vascongadasen LHK-k diharduen bitartean baina KES oraindik abierazi ez delarik, Nafarroan. Ali Jn. ren zenbait adierazpeni jaramon eginez, K.E.S. ren oraingo osaketa «sindikatu guztietara» heda daiteke, baina ideia zehaztu arte itxaron egin beharko da.

Beraz, baldintza objektiboak (instituzio-garapena, indar koerlazioa, kontzientzia abertzalea,...) guztiz ezberdinak dira, beraz, guk marko bietan (Nafarroa eta vascongadas) instituzio- eskuhartze uniformearen burutzea ezin daiteke aurrebaldintza izan. Uniformea dena, instituzio mota honetan gure presentziaren aintzatespena bilatzea da -biltzarrean bertan eta aurretiazko eztabaidetan ikusi ahal izan dugun bezala-, ez ordea bertan garatu beharreko eskuhartze zehatza.

3.2.- SINDIKATUARTEKO HARREMANAK

Sindikatuarteko gure harremanak Hego Euskal Herrian, hemen diharduten erakunde sindikal guzti-guztiei zabalik daude eta, beraz, gai honi buruzko gure planteamenduek ezin dute, printzipioz, inor baztertu ez inori lehentasunik eman. Harremanen mugak eta norabideak LAB garen aldetik definitu eta zehazteko gai garenaren menpean egongo dira: garatu nahi ditugun edukinen araberakoak.

Eskuhartze sindikalerako dauden markoetan (negoziazio kolektiboa, ekintza instituzionala, gatazkak...) sartu eta berauei ekiteak marko hauen muga, zalantzagarritasun eta kontraesanak gureganatzea dakar. Horrela soilik, beraien barruan eta barrutik, taiutu ahalizango ditugu geure helburu taktiko eta estrategikoak erdiesteko beharrezkoak diren aldaketak. Hau da, oker genbiltzake, gure nortasun sindikala garatzeko, gainontzeko pertsona eta sindikatuei LABek bezala pentsatu eta joka dezaten eskatu behar diegula pentsatuko bagenu: aritzen garen esparruetan, hain zuzen ere, aldarrikatu behar dugu geure nortasuna, lapak baikinaren itsatsi behar gataizkio gure ihardun espezifiko eta berezia garatzen segitzea ahalbideratzen

diguten toles eta zirrikitu guztiei, LABek ordezkatzeko duen sentikortasun sindikalaren isolamendu eta zokorapena ekidinez.

Aurrekoa sarrera gisa esan ondoren, azter dezagun orain nondik bideratu behar ditugun sindikatuarteko gure harremanak.

3.2.1.- GUTXIENEZKO BEHARKIZUN DEMOKRATIKOAK

Litezkeen guneetarik edozeinetan, aurretiazko eskakizun bat, gutxienezko normaltasun demokratikorako beharkizun bat ziurtatu beharra dago: izan bagarela, arlo guztietan aintzatestea.

Gainerako sindikatuek, instituzioek eta, jakina, ugazaberiak gure aurka darabilten zokorapenak lehenbait lehen gaitzitu beharreko gaisotasun eta neurosi kutsu ikaragarri bortitz eta zabala hartu du. Zokorapena arlo guztietara hedatzen da, gure partehartzea eragotziz: gizarte/lan-organoa eta erakundeetako gure partehartzea, sindikalismoarako dirulaguntza publikoak, negoziaketa eta segimendurako mahai ezformal eta formalak, ondare sindikala, komunikabideak... Beraien estrategia gu erabiltzea da, edozein auzitan eginkizun jakin bat betaraziz, eta gainerako guztietan gauden bezala segiaraziz. Baina gu ez gara haien jokoan sartuko.

Etengabe azpimarratu eta nabarmendu behar dugu LABek ordezkari garrantzitsua daukala, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki: gehiengoarena ez den sentikortasun sindikal alternatiboa ordezkatzeko dugu. Bere burua demokratikotzat jotzen duen gizarte zein agente orok atea zabaltzeko behar dio sentikortasun horri etengabe oztupoak jartzean oinarritutako estrategia eta eginera antidemokratikoa behin betikoz baztertuz.

Grafikoki azaltzeko: gizarte totalitariari hain ondo egokitzen zaien «hiru tximinoen» irudiak (batek begiak, besteak belarriak eta hirugarrenak ahoa estaltzen du) primeran erakusten du LABekin egiten ari dena: LAB ez da ikusten, LAB ez da entzuten, LABekin ez da mintzatzen. Euskal sindikatuon derrigorrezko zeregina da irudi hori lehenbait lehen desagertarazi eta lurperatzea.

3.2.2.- HARREMANEN MARKOARI BURUZ

Lehenengo eta behin parra-parra erabiltzen dugun hainbat kontzeptu argitu behar dugu haietarik zein garatu behar dugun eta berorrek LABentzat dauzkan esannahi eta irispidea zehazteko:

- «Ekintza Sindikalerako Batasun Iraunkorra»: kontzeptu hau ere ez dator bat egungo baldintzekin. Baina ez diogu ezezkorik emango era honetako harreman marko bat ezartzea ahalbideratuko duten baldintzak sortzeari. Edonola ere, marko hori LABen iritziz funtsezkoak diren helburuetan oinarritutako eskuhartze sindikalerako egitarau amankomun batek funtsatu beharko luke: Lan Harremanetarako Marko Autonomoaren lorpena; Euskal Herriak behar duen gizarte eta ekonomi gunea egituratzera joko duen gizarte, ekonomi eta industri politika; euskal eremuan klase interes zehatzak babestu eta garatzeko gai izango den negoziazio kolektiboa; e.a.

- «Ekintza Sindikalerako Unean-Uneko Batasuna»: hauxe dugu eszenatoki ahalezko, bideragarri eta hurrenena. Oso gai zehatz eta aldibaterakoetan oinarritutako ekintzetan bat egitea da: hauteskunde sindikalerako metodologia, negoziazio kolektiborako markoen estatuzko hazkorrari aurre egitea (herrialdeko markoak krentsi eta baliogabetzen dituzten estatu mailako komenioak), e.a... Hots, sindikatuaren barruan egitea, horren «ikusgarriak» ez diren eremuetan jadanik egiten ari garena (komenio baten negoziaketa, espediente baten aurka jotzea...).

Arazo nagusia ez da «batasuna» bera, geure jarrera ondo definituta daukagun ala ez jakitea baizik. «Batasuna» tresna hutsa da, besterik ez, eta ez da zuzena bera absolutu bihurtzea, ez positiboki (defentsa posibilista) ez negatiboki (printzipiozko aurkakotasuna).

Beraien estrategia gu erabiltzea da, edozein auzitan eginkizun jakin bat betaraziz, eta gainerako guztietan gauden bezala segiaraziz. Baina gu ez gara haien jokoan sartuko.

«Ekintza Sindikalerako Batasun Iraunkorra»: kontzeptu hau ere ez dator bat egungo baldintzekin. Baina ez diogu ezezkorik emango era honetako harreman marko bat ezartzea ahalbideratuko duten baldintzak sortzeari.

«Ekintza Sindikalerako Unean-Uneko Batasuna»: hauxe dugu eszenatoki ahalezko, bideragarri eta hurrenena.

Arazo nagusia ez da «batasuna» bera, geure jarrera ondo definituta daukagun ala ez jakitea baizik.

Garatuko diren guneetarik edozeinek langileen protagonismo aktiboa faboratu beharko du. Gizartearen aldarazpena lantokietan lortuko da eta ez beste inon, hortxe neurtu eta ebaluatzen baita klase interesen garapen zehatza.

Honako bi ideia hauez defini dezakegu Negoziazio Kolektiboaren oraingo egoera: desmobilizazio hazkorra eta aurrerapen erreibindikatorik eza.

Gure egote eta partehartzearen mugak (praktikan, ez teorian), guk, ekintza batasuna alde batera utzita, geure zeregin eta helburuak garatzeko daukagun ahalmenak ezartzen ditu: batasunak ito egiten bagaitu apurto egin beharko dugu; geure gaitasun eta ihardunak hausten ez badute, eutsi egin beharko diogu.

Hala bada, arazoa honakoa baino ez da: batasunetik bertatik sortzen diren gauzak eta guk egiten ditugunak ezberdinak direnentz egiaztatzea. Ez badugu ezer ezberdinik egiten, batasuna izango da zaindu beharreko gauza bakarra (bera baita egiten dugun bakarra); benetan gauza ezberdinak egiten baditugu, ordea, egiten dugunak gainontzekoak gure atzetik erakartzen baditu irauko du batasunak, eta hautsi egingo da «batasuna»ri eusteagatik LAB garen aldetik egiten ari garena alde batera uztea eskatzen bazaigu.

3.2.3.- BATASUN KONTSEKUEKTEA OINARRIETAN ETA PRAKTIKAN

Langileen batasuna ez da mahai sindikal handietan lortzen, ez eta errealitatea bertan aldatzen ere.

Garatuko diren guneetarik edozeinek langileen protagonismo aktiboa faboratu beharko du. Gizartearen aldarazpena lantokietan lortuko da eta ez beste inon, hortxe neurtu eta ebaluatzen baita klase interesen garapen zehatza.

Alperrikakoa litzateke erakunde «sendo», «entzunte handiko», «adinez nagusia»... izatea, «gizarte solaskidetzarako gaitasun handiak» lan eta bizi baldintzak ukitzen ez baditu.

3.3.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

3.3.1.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOARI BURUZKO BALORAPEN LABURRA.

Honako bi ideia hauez defini dezakegu Negoziazio Kolektiboaren oraingo egoera: desmobilizazio hazkorra eta aurrerapen erreibindikatorik eza.

Ezin da «marriaketa prozesuaz» mintzatu, lehenago ere (Moncloako Itunak baino lehenagoko epealdian ere ez) NKren ihardun errealak ez baitzeukan mobilizazio-maskarik, ez lan-baldintzen aurrerapenezkorik ez eta burruka erreibindikatorik maskarik ere -noizbait oso isolatuki gertatu eta langileen mugimendu osoaren ezaugarri ez zirenak salbu-; orduko ihardunak, aitzitik, «normalkuntza» maskak agertzen zituen areago, lan eta instituzio-bilbapen autoritari batetik demokratiko omen den beste baterako igaropen formalak ezarritako maskak, alegia. Inolako zalantzarik gabe, UGT-CCOO-ELAk zerikusi handia izan dute oraingo egoeraren sorreran, LAB giro horrek erabat inguratu eta baldintzaturik geratu delarik.

Gaur egun, NKri dagokionez, sindikalismo bertikaletik jarauntsitako sektore-markoak, ustez enpresaz enpresako markoen alde desbalioztatu dira. Krisia areagotzeak jasangarri bihurtzen dio langileriarri gaur egun, lehen finkatu ziren lan-baldintzen galera hazkorra. Sindikatuok -eta oraingoan LAB ere barruan- legeriaren interprete eta enpresetan lortutako komenio eta itunen kudeazaile huts izateari heldu diogu.

Egoera eta indar-koerlazioa horrela daudelarik -bestalde, langileen mugimenduan dagoen kontzientzi mailaren islada baino ez dena- ezinezkoa da lan-baldintzen marriadura orokorra enpresaz enpresa eta sektorez sektore aldaraztea. Hots, NK ez da orain jasaten dugu aurkako bilakaera iraularaztea ahalbideratuko duen tresna.

NKko ihardunean dugun jarrera bi ardatzen artean koka dezakegu: batetik, negoziazio prozesuetan parte hartu eta aktiboki esku hartzea; bestetik, aipatu prozesuok, erreibindikatu beharrekoari dagokionez (behinbehinekotasuna, aparteko orduak, eskuratzeko ahalaren galera, mugikortasun funtzionala,...) ezer konpontzen ez dutela ikusi eta egiaztatzea. Baina azken urteotako gure ihardunaren ezaugarria bi ardatz horien arteko teinkadura desagertu izana da: antzerako komenioak sinatu egiten dira zenbait kasutan eta beste batzuetan ez, ordea; sinatzaileentzako batzorde parekideen

arazoak nahasi egiten ditu planteamenduak; e.a.

3.3.2.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN JITE POLITIKO-INSTTUZIONALA

Langileriak ekoizpen eta gizarte-prozesuan jasaten duen desberdinkeria bortitza are nabarmenagoa da krisialdian: «ekoizpen-beharrizana», «iharduera ekonomikoa», «enpresa-iharduera», e.a. lehentasuna ematen zaie beste edozein faktoreren aurrean (gizarte mailakoak, birbanaketazkoak,...). Honela, beraz, Hego Euskal Herrian Negoziazio Kolektiboak langileriaren aldeko diskriminazio edo bazterketa positiboa behar du, izan ere legeriaren bidez soilik etor daitekeen bazterketa, eta oraingo marko juridiko-politikoa aldaraziz baino gertatuko ez dena.

3.3.3.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA EGITURATZEN DUTEN ELEMENTUAK

Negoziazio kolektiboa elkar loturik dauden hiru elementuren inguruan egituraturik dago: egitura eta eremuak, edukinak eta formak.

***NKren egitura eta eremuak.** Berauen estatalizazioaren aurkako oposizioa da LABen oinarrizko helburuetariko bat, baina ez bakarra. Lan baldintza homogenodun eremuetan NK sakabana dadin ekiditeko lan egin behar dugu (adibidea: herrialde bakoitzean saltegi, bulego eta lanbulegoetako komenio asko dago...) eta alderantziz, baliteke zatiketa-ildo bat landu behar deneko eremurik egotea, egungo eremuak errealitate guztiz heterogenoak baldin badauzka (adibidea: siderometalurgiako komenioak).

***NKren edukinak.** Arlo ekonomikoa elementu garrantzitsua delarik (baliteke eremu guztietan ez izatea baina bai gehienetan) -are gehiago abagune zehatz honetan, ugazaberia publiko eta pribatuaren jarrera ikusirik-, gure erakundeak oinarrizko beste aspektu batzuk ere garatu behar ditu; aldizkakotasuna; lanpostuen sailkapen eta esleipenekin loturiko mugikortasun funtzionala; emakume, gazte eta elbarrituen diskriminazio erreala eta ez formala; enpresa bakoitzaren barne-euskalduntzea eta beraren kanpo-harremanena; lan osasuna eta ekologia; lanbide-sustapen eta trebakuntza; langile, eskuorde eta batzorde eta sindikatuen eskubide sindikalak; e.a....

***NKren formak.** NKren marko batek ukitutako pertsonen partehartze aktiboa funtsezko faktore erabakiorra da LABentzat: klase kontzientziaren eta aurrerapen iraulgaitzen garapenaren termometroetako bat da. Protagonismo aktiborik gabeko komenio baten edukin onak lantokietan itundutakoa beteko ez dela edo irabazitakoa hurrengo negoziazioan galdu ahal izango dela besterik ez du adierazten. Bai eta alderantziz ere: edukinari dagokionez aurrerapen adierazgarriak izan gabe, partehartzearen aldetik "ereduzkoa" den prozesuak ingurutik at dagoen edo benetan irabazi nahi ez zen borroka dela adierazten du. Edukinak eta formak gauza beraren bi aldeak izan behar dute, hots, orekatu egin behar dira.

3.3.4.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA ETA GURE ESKUHARTZEA

Negoziazio Kolektiboaren ingurua nola dagoen ikusirik, tentagarria da NK guk esku hartzeko eremua ez dela esatea, areago langileentzako mintzaldi erradikal eta hiperpolitikoa-noski- daukan «kalitatezko zerbitzuetarako sindikatu» bihurtzeko dugun joera erreala somaturik.

Izan ere, Negoziazio Kolektiboa aurrebaldintzatzen duten egiturazko elementuetan eragiteko euskarri eta tresnarik gabe, esku hartzeko gune «antzu» bilakatzen da NK bera. Baina, egiturazko aurrerapeneke ez dute langile-potentzialtasun handiagorik sortarazten; aldaketen ikusle izateak nabarmenki definitu izan du langileen mugimenduaren historia, oso salbuespen urri, isolatu eta unean-unekoetan ezik.

Abagune zail honetan gure eginkizunak nolakoa izan behar duen jakin dezagun, LABeko funtsezko elementuetatik abiarazitako ahalegin teoriko-praktikoa (lehen «praxis» deitzen zena) behar da: proiektu eraldatzailea, partehartze aktiboa,... Hau da, Negoziazio Kolektiboan koherenteki esku hartuko badugu, LABen «karkasa» goitik behera hartuko

NKren estatalizazioaren aurkako oposizioa gure oinarrizko helburuetako bat da, baina ez bakarra.

Negoziazio Kolektiboaren oinarrizko beste aspektu batzuk garatu behar ditugu.

NKren marko batek ukitutako pertsonen partehartze aktiboa funtsezko faktore erabakiorra da LABentzat.

duen gogoeta egin behar dugu: errealitatearen azterketa (non gauden), gure alternatiba estrategiko eta taktikoa (norantz goazen), LABen azterketa (nortzuk garen) eta esku hartzeko ildo nagusiak (zer egin).

Finean, erabat aurkakoa dugun inguru honetan NKK LABi zer ekar diezaiokeen zehaztea da gakoa, NKn esku hartzeari ezin hor konpon egin diezaiokegula, ezin pasoa egin dezakegula, kontutan hartuz.

Negoiazio Kolektiboak, beraz, iharduten dugun egoera eta inguruaren arabera eusten diogun aurkapenezko sindikalismoaren zantzua izan behar du, are gehiago, orain jasaten dugun aurkako bilakaera iraularaztea ahalbideratuko digun tresna ez dela onartu dugularik.

Negoiazio Kolektiboaren eginkizun eta eragina erlatibizatutakoan, bertan esku hartzean planteamendu eroso eta posibilistak baztertu eta gainditu behar ditugu, kaltetutako kolektiboen borroka ideologiko eta teinkadura bilatuz lehen aipatutako hiru elementuen inguruan: Negoiazio Kolektiboaren egiturak edo markoak, edukinak eta formak, alegia.

Gauza guztietan bezala, bidea ez da praktikan lineal edo uniforme izatea: egoera eta komenio bakoitzak bere berezitasunak dauzka. Baina inguruarekiko egokitzapenak ez du planteamendu orokor hau desitxuratu behar, batez ere dagokion komenioa sinatu ala ez sinatu baino lehenagoko prozesuan; izan ere, sinatu ala ez sinatzeko uneak argiro taiutu eta bideratutako lanaren burutzapena izan behar baitu, eta behar-beharrezko zaigun lan hori aurretiaz egin gabe, mahai edo batzordeetan egoteari berari ere jarri beharko diogu galdeikurra.

Bertan esku hartzean planteamendu eroso eta posibilistak baztertu eta gainditu behar ditugu, kaltetutako kolektiboen borroka ideologiko eta teinkadura bilatuz.

3.4.- INDUSTRI EGOERA DELA ETA

3.4.1.- AURREARRETAZKO METODOLOGIA

Egoera honek, Ekintza Sindikalari buruzko txostenaren 3.4. atalean azaldutako gogoeta multzoa arakatu eta sakontzera behartzen du Sindikatua -eta honen barruan industri sektorean ekonomi izaeraz adierazitako gatazka zehatzei aurre egiteko erantzunkizuna daukatenak-.

Honelaxe azal daiteke laburki, gutxi gora-behera, aipatu gogoeta-multzoa:

A.- Funtsezkoan irmotasunez eta erantsian malgutasunez jokatzeko konbinazioa «haritza bezain sendoa, ihia bezain malgua» lortzeko eta funtsezkoa dena eta ez dena bereiztu ahal izateko, ikuspegi edo plano ezberdinetatik aztertu behar dugu gatazka:

- a.1.- abagadunezko/egiturazko izaera.
- a.2.- enpresaren tamaina eta kuantitatiboki daukan garrantzi ekonomikoa.
- a.3.- garrantzi kualitatiboa (oinarrizkoa/ estrategikoa).
- a.4.- egiturako oinarria daukaten bideragarritasun-egitasmo edo neurrietan, berauen euskarri diren zioak teknikoki hertsiki banatu eta aztertzea.
- a.5.- eskematik abiaturik egindako karakterizazioa: enpresaren eta berau dagokion sektorearen egoera espezifikoa, eta sektoreka alderatuz aztertzea.

B.- Iharduera sindikal arduratsua, honako honetan funtsatua:

- b.1.- enpresaren eta beronen enpresa-kudeaketaren jarraipen hertsiki eta sistematikoa, ekonomi eta finantz-mailari dagokionez. Arreta handiz ibili behar dugu kalitatezko informaziorako eskubidea gauza dadin.
- b.2.- «aitzinapenez» jokatzeko funtsezkoa da arazoak somatu eta gatazkaren berri ematerakoan.
- b.3.- ez dugu leloarena egin behar egitarauaren lan-atalen maliobra ezagunean jauziz; eztabaidaren helburua strategiaren ardatz nagusietan, hots, oinarrizko aukeretan kokatu behar dugu.
- b.4.- Iharduera aukeratutako norabidean eraginkortasunez gauzatu ahal izateko antolakuntza-euskarri beharrezkoaz lan egitea.

C.- Gatazka jakin batean (garrantzizko eraispen oso edo partzialak, derrigorrezko kanporaketak, lan-baldintzen atzeranzko funtsezko aldaketak, ...) irispide luzeko neurri atzerakorrekiko aurrez aurreko jarrera sindikal bortitza.

D.- Gatazka sektorearen planoan edota lurralde-hedaduran kokatzea.

Egin beharreko gogoeta guztiak azaldu ez diren arren, balio beza orain arte adierazitakoak gatazka zehatzetan hartu beharreko jarrera sindikalak «aurretiazko jubilazioak bai ala ez» puntura mugatu behar ez direla ondorioztatzeko. Aurretiazko jubilazioak non, noiz, zergatik, nola, jubilazioak islada direneko neurrien eragin ekonomikoak, gizarte-eragiketak, e.a. aztertu behar dira. Bideragarritasun egitamuan zehazturiko industri ereduari ematen diogun baieztoko ala ezeztokoaren arabera ondorioztatuko da jubilazioei dagokionez izan beharreko jarrera. Gizarte-prozesuei buruzko hausnarketa egiteko era alda dezagun.

3.4.2. OROKORRA ETA ZEHATZAREN ARTEKO DIALEKTIKA

Industri politikan eta oro har politika ekonomiko eta sozialaren aurreko iharduna (mobilizazioak eta diskurtsoa) eta enpresa gatazka zehatzen aurrekoaren arteko koherentzia funtsezko bereizgarritzat eduki behar du sindikatuak.

Elkar lotura hau ez dago edo igargaitza da ELA-CCOO-UGTn. Oro har esaten dutena eta gatazka zehatz batean egiten dutenaren arteko distantzia handiegia da. Hala ere elkar lotura hori nabarmendu egiten da gatazka zehatzaren aurrean egiten dutena eta mobilizazio orokorretan egiten dutena alderatuz gero. Hauen mobilizazioak itxurazkoak dira, generikoak, helburu zehatz baten inguruan tajutu gabeak, abagune jakin batean aurrerapauso zehatzak, partzialak izan arren, eman daitezten lortzeko borondate eta estrategiarik gabekoak. Hots, jarrera horrekin, orohar indar erlazioaren arloan LMa jasaten ari den atzerakadaren larriagotze horren erantzunkide dira.

Industria egoeraren ildotik eta LHMAri buruzko atalean garatutako gogoetekin lotuz, ezin ahaztu bi aukera dauzkagula, enplegu araupeketarako espedienteen administrazio prozedura deuseztatzeko ahalegin nabarmenak etenarazi edo bestela, gatazka zehatzetatik garralde ateratzeko aukerak indarra galdu edo desagertu egingo dira.

Baina oro har lehia benaz burutzeko aurretiaz gatazka konkretuan ere lehiatzeko gai izan behar da, etengabe elikatu beharreko jarioa da.

Hala ere, gatazka konkretutik maila orokorrerako ihardun sindikalari koherentzia ematen dion ibilbideak ez du zertan linea zuzena izan behar. Ibilbide horren itxura koherentziaz landuriko bidea izan daiteke, linea zuzenaz gain, tinkotasun eta itzulkortasunaren arteko konbinazioa ere barmehartzen duena.

Hona iritsiz gero (gure ordezkartasun mailaren ondoriozko erantzunkizun sindikala), dinamika orekari begira ihardun beharra daukagu (egoera eta oreka egonkorretatik ihesi) jarrera sindikal aurrerakoia eta eraginkortasuna lotzen dituen ondorio bat lortzeko. Beti ere lehenengo berbari garrantzi handiagoa emanez: jarrera sindikal aurrerakoia.

3.4.3.- KONFRONTAZIO SINDIKALISMOA

Egungo industri gatazketako ezaugarri bat euskal eremuan abagune/egitura dikotomiak ezer gutxi balio duela da, hartzen diren neurri gehienek (bidegarritasuna, ixteak dakartzaten espedienteak, zatikako industrigabetze esanguratsuak...) euskal ekonomiak pairatzen duen egitura arazo larrien islada den egitura euskarria daukate. Ondorioz, egoerak iharduera eta jarrera sindikal irmora behartzen gaitu, aurkamendu garbi eta defentsibari begira.

Azken hilabeteotan sindikatuak 3R deituriko Egitasmoarekiko daukan jarreraren inguruan kezka nagusitu da. Arazo hau ikuspegi orokorretik eta gatazka zehatzaren ikuspegitik aztertu behar da.

Ikuspegi orokorretik 3R Egitasmoa onargarria litzateke gutxienez gure herriaren

Jarrera sindikalak «aurretiazko jubilazioak bai ala ez» puntura mugatu behar ez direla ondorioztatzeko.

Industri politikan eta oro har politika ekonomiko eta sozialaren aurreko iharduna (mobilizazioak eta diskurtsoa) eta enpresa gatazka zehatzen aurrekoaren arteko koherentzia funtsezko bereizgarritzat eduki behar du sindikatuak.

***Egoerak iharduera eta
jarrera sindikal irmora
behartzen gaitu,
aurkamendu garbi eta
defentsibari begira.***

industri gabetzea ahalabideratuko luketen beharrezko baldintzak bilduko lituzkeen politika baten katemaila balitz. Industri politika horretarako oinarriko baldintzak eztabaida lan honen 2.1.1. atalean tajutuak daude hein batean. Ikuspegi orokorretik 3R Egitasmoa arbuia garria da, industri sasipolitikaren ardatz delako eta jaio aurretik hilik dagoen baten (Azua Egitasmoa) ordezkioa delako gainera.

3R Egitasmoa ontzat ez emateko arrazoi eta perspektibak azalduz gero, gatazka zehatzaren dimentsiotik nekez balio diezaiguke funtsean industri gabetzearen ondorio larriak baretzeko balio badu. Gu ez gara horren hedatzaile ez eta legebidez kotzaileak ere, ez baita edukin nahikodun tresna eta ez baitago industri politika erreal baten barruan. Hala ere, gatazka baten konponbide atzerakoia ezaririk, eta gure borondatearen aurka, dilemarik ez dago.

**NAZIO IDAZKARITZAK NAZIO KONFERENTZIARI
AURKEZTEN DIZKION EBAZPEN-PROPOSAMENAK**

* EKINTZA SINDIKALAREN BATASUNARI buruz.

* PRECO IRI buruz.

* INDUSTRI ETA EKONOMI EGOERARI DAGOKIONEZ HARTU BEHARREKO
EKIMENEI buruz.

* NEGOZIAZIO KOLEKTIBOARI buruz.